

GENERO ANIZTASUNA HAUR HEZKUNTZAN.

Irakasleen formakuntza.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Aizpurua Aranguren, Irene.

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia.

2019-2020

Prozesu honen guztiaren narrazioari heldu aurretik eskerrak eman nahi dizkiot lan honetan parte hartu duen norbanako orori eskaera jasotzean erakutsitako alde aurretiko jarrera eta parte-hartzean eskainitako laguntza guztiagatik.

Laburpena: Sexu/genero sistema bitarra, norbanako ororen alderdi guztiak zeharkatuz, jendartea ulertu, sailkatu eta antolatzeko funtzioa betetzen duen balore egitura hegemonikoa da. Banaketa dikotomiko honek, are jaio aurretik ere, haurraren errealitatea aurre-marratzen du, genitalitatearen tiranian genero bat edo beste eta horri hertsiki lotzen zaizkion rol eta funtzioak esleitzearen bitartez. Sistema hau baliabide ezberdinez baliatzen da binarismoaren diskurtsoa normaltasun objektibotzat bermatu eta identitate disidenteak periferiara kondenatzeko asmoz. Hala, egungo sozietatean horren errotuta dagoen ikuspegia denez gero, hautemate hau haurrengan txertatzen joaten da pixkanaka, identitatearen garapena zeharo baldintzatuz. Hori kontuan izanik, Haur Hezkuntza prozesu honekiko erantzukizun handiko etapatzat jo izan ohi da, irakasleengan erortzen delarik biolentzia sistema horrekin hausteko ardura. Horregatik, lan honen bitartez Haur Hezkuntzako irakasleek genero aniztasunaren inguruan duten ezagutza eta kontzientziazio maila aztertuko dugu. Horretarako, genero ikasketetan adituak diren bi pertsona elkarrizketatu eta Haur Hezkuntzako sei irakaslek galdetegi bat burutu dute. Amaitzeko, irakasleak genero perspektiba zabalago batetik eskola eman ahal izateko beharrezko ezagutzaz hornitzeko helburuarekin, genero aniztasunaren inguruan diseinaturiko formakuntza eta infografia bidezko materiala sortu eta ebaluatu da.

Hitz gakoak: Sexu/genero sistema, Binarismoa, Genero aniztasuna, (Trans)feminismoa, Queer pedagogia, Haur Hezkuntza.

Resumen: El sistema sexo/género es una estructura de valores hegemónica, que traspasando todos los aspectos de cada individuo, cumple la función de comprender, clasificar y organizar la sociedad. Esta división dicotómica, incluso, antes de nacer, esboza la realidad de la infancia a través de la asignación de roles y funciones inherentes a uno u otro género en la tiranía de la genitalidad. Este sistema se sirve de diferentes recursos para garantizar el discurso del binarismo como normalidad objetiva y condenar las identidades disidentes a la periferia. Así, al ser un enfoque tan arraigado en la sociedad actual, esta precepción se va incorporando paulatinamente en lxs niñxs, condicionando profundamente el desarrollo de la identidad. Teniendo esto en cuenta, la Educación Infantil suele considerarse una etapa de gran responsabilidad con respecto a este proceso, cayendo en el profesorado la labor de romper este sistema de violencia. Por ello, a través de este trabajo analizaremos el grado de conocimiento y concienciación del profesorado de Educación Infantil sobre la diversidad de género. Con tal fin, entrevistaremos a dos personas expertas en estudios de género y realizaremos un cuestionario a seis profesoras de Educación Infantil. Para finalizar, con el objetivo de dotar al profesorado de los conocimientos

necesarios para poder impartir las clases desde una perspectiva de género más amplia, se ofrecerá una formación y un material diseñado por medio de infografías en torno a la diversidad de género.

Palabras clave: Sistema sexo/género, Binarismo, Diversidad de género, (Trans)feminismo, Pedagogía queer, Educación Infantil.

Abstract: The sex/gender binary system is a hegemonic structure that crosses oneself aspects and shapes the way of understanding, classifying and organizing society. This dichotomous division pre-sets the reality of the child, even before birth, this being fulfilled on the bases of genitality tyranny which assigns the roles and the functions assigned to one gender or the other. This system uses different means to label the speech of binarism as objectively normal, while the additional dissenting identities are side-lined. Since in current society this perspective is deep-rooted, this reality is transferred to children, this being a conditioning factor in their identity development. Taking this into account, Infant Education is considered as an essential period of this process, and teachers are burdened with the responsibility of overthrowing this violent system. As a response to this situation, the current paper aims to analyse the knowledge and awareness teachers have concerning gender diversity. For this purpose, two experts on gender studies and six infant school teachers have responded to a questionnaire. Finally, with the purpose of supplying teachers with tools to instruct from a wider gender perspective, a formation and an infographic concerning gender diversity will be handed and evaluated.

Keywords: Sex/gender system, Binarism, Gender diversity, (Trans)feminism, Queer pedagogy, Infant Education.

AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	6
1. SARRERA	7
2. MARKO TEORIKOA	7
2.1. SEXU/GENERO SISTEMA BITARRA.....	7
2.2. GENERO ANIZTASUNA HAUR HEZKUNTZAN	10
2.3. QUEER PEDAGOGIA.....	11
3. HELBURUAK.....	13
4. METODOA	13
4.1. PARTAIDEAK.....	13
4.2. TRESNAK	14
4.2.1 Tresna metodologikoak	14
4.2.2. Ikaskuntza zerbitzua	16
4.3. PROZEDURA.....	16
5. EMAITZAK	19
5.1. BEA UGARTERI GALDETEGIA.....	19
5.2. ANE ZURUTUZARI ELKARRIZKETA	23
5.3. IRAKASLEEI GALDETEGIA	25
5.3.1. Kontzeptuak definitzen	25
5.3.2. Hezkuntza-komunitatearen papera	27
5.3.3. Irakasleen formakuntza	27
5.4. EMAITZEN KONPARAKETA.....	28
6. ONDORIOAK	29
7. IRAKASLEENTZAT SORTUTAKO MATERIALA	32
7.1. FORMAKUNTZA.....	32
7.2. INFOGRAFIA.....	32
7.2.1. Irakasleen balorazioa.....	33
8. HAUSNARKETA.....	34
ERREFERENTZIAK.....	35
ERANSKINAK.....	39
1. Eranskina: Ane Zurutuzak gomendatutako eskolen zerrenda	39
2. Eranskina: Formakuntza	40
3. Eranskina: Infografia	52

Zuentzat nire bizilekua bortxatzen didazuenean soilik existitzen naiz, zuenean bizi naiz.

Zuen egi transgibertsatu, begirada distortsionatueta erditzen naiz. Zuengan naiz, zuen begi, egi absolutueta soilik existitzen naiz. Zuen lurralde eta larrualdeeta gorpuzten nauzue. Orduan bakarrik bilakatzen baita zuentzat nire deslekua leku.

Baina hor, niarentzat ez da leku.

Zuen desleku den lurralde hau dut nik larrualde eta bizileku, nire egien lekuko den sorleku.

"Beste" (des)lekuen helduleku izan dadila.

1. SARRERA

Gaur egungo bizimodu edo erregimenaren arrakalarik estuenetik ere iragazten da keinu, jarrera, identitate, harreman zein sexualitatea zurrun taxutzen dituen sexu/genero sistema bitarra. Sistema hau egungo jendarte mendebaldarreko dogma bilakatu dela esan dezakegu.

Baina, bada garaiko gizarte dogmatiko honen baitan kokatzen ez den biztanleriaren zati bat, jendarte honetako adin txikienean kasua da hau, hain zuzen ere. Izan ere, gauzen esanahi sozialaren zentzugabekeriaren lekuko garbienak dira haurrak, oraindik ez baitute ideologia patriarkal hegemonikoaren diktadurapean erditutako arrazionalitatea edo kritikotasuna bereganatu. Simone de Beauvoirek 1949an kaleratutako *Bigarren Sexua* liburuan (2019) argi utzi zuen moduan, generoa heziketaren bidez txertatzen baita gure gorputzean. Hala, maiz sistema hau behetik gorako noranzkoan goitik behera puskatzen, iraultzen eta kolokan jartzen dituzten galdera, jardun edo ekintzak gorpuzten dituzte umeei.

Hori kontuan izanik, begi bistakoa da erreprodukzio kate segregatzaile honekin eteteko bidean hezkuntza funtsezko eragilea dela. Beraz, ezinbestekoa da hezkuntza komunitateko partaide den norbanako oro genero aniztasunaren inguruan kontzientziatuta egotea.

Hain zuzen ere, hori da lan honen helburu nagusia, beraien jardunean kontzientzia hartu, inplikazioa garatu eta pedagogia feminista batetik irakasteko asmoz, irakasleak genero aniztasunaren inguruan sentibilizatzea eta aktibatzea gaiaren inguruko informazio eta baliabideak eskainiz.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. SEXU/GENERO SISTEMA BITARRA

Gure garaiko jendarte mendebaldar honetako pertsona guztiak genitalitate hutsean oinarritzen den klasifikazio zehatz bezain erradikalera daude kondenatuta, alegia, genero dikotomia erregimenera. Esan gabe doa, diskurtso honetan morfologiari eta osaerari dagokionez bi organo baino ez direla bereizten, zakila (arra) eta alua (emea), baita bi genero hegemoniko ere, emakumea (femeninoa) eta gizona (maskulinoa), hain zuzen ere (Butler, 2018).

Hala, organo hauek zehazten dituzte, are jaio aurretik ere, besteak beste, haurrengan ziurtzat joko diren aurreiritzi, eskakizun, tratu, rol, genero zein orientazio sexuala, modu horretan generoaren ikuspegi bitarra sortuz. Nahitaez, pertsona guztiak kategoria hegemoniko dikotomiko hauetan taxutzen dira (Beall, Eagly eta Sterberg, 1993), horrek berarekin dakarren injustizia, bazterketa eta biolentzia guztiei bidea legitimizatuz.

Hots, sistema bitarraz aritzean, sexu/genero sistemaz ari gara hizketan, bi sexu eta bi gorputz kontrajarriz, bakoitza bere funtzio biologikoekin, osagai psikologikoekin, eta horien araberako funtzio, ezaugarri eta harreman sozialak baietsiz (Rubin, 1975). Hala, Rubinek *The traffic in Women* (1975) idatzian aditzera eman zuen moduan, gizarte eta kokaleku sozial desberdinetan bereizketa sexualaren antolaketek (sistema dikotomikoa edo binarismoa) zein ugalketa biologikoarekin hertsiki kateatutako diskurtso eta praktika sozial hegemonikoek (hetero-araua eta amatasuna alde batetik, eta determinismo biologikoa bestetik) ezartzen dituzte emakume eta gizonen irudikapen moduak (Alvarez-Uria, 2011), beste edozein alteraziok, ezinegona eta ondoeza dakarrelarik.

Sexu/genero dikotomiaren inguruan gabiltzan honetan komenigarria da terminoaren erroetara jotzea. Hain zuzen ere, Stoller psikiatrak ezarri zuen 1964. urtean genero hitza, pertsona transei diagnosiak burutu ahal izateko asmoz. Hala, biologia eta kulturaren bereizketa egituran txertatu zuen genero identitatea, sexua biologiarekin eta generoa berriz, kulturarekin erlazionatuz. Modu horretara, genero erregimen dikotomikoa garaiko axioma feminista izatera pasatu zen, hau da, pentsamendu feministari zegokion kontraesanean (Izquierdo, 1998). Izan ere, genero sistema bitarraren egote hutsa suposatzeak sineste inplizitu hau dakar: “generoa erlazio mimetikoan dagoela sexuarekin, eta generoak isplatu egiten duela sexua, edo, bestela, sexuak zedarritzen duela generoa” (Butler, 2018). Honen harira, *Genero ariketak* liburuan (2013), Medeak taldekoek, generoen arteko ezberdintasuna areagotzen duen botere-egitura kritikatu arren, generoa gorputzetan inskribatzeko modua kontuan hartzen ez duela leporatzen eta kritikatzeko dio feminismo klasikoari. Hala, Medeaken hitzetan, mugimendu feminista klasikoak subjektibitateak sortzen ditu gorputzik gabeko subjektu ilustratu bat sortuz (Medeak, 2013).

Alabaina, berdintasunaren feminismoa bezala ezaguna den garai horretako ideologia feministaren helburu nagusienetako bat gizon eta emakumeen arteko bereizketak oinarri naturala zituen tesia ezeztatzea zen arren, bigarren olatu feministan diferentzia biologiko hori aldagai esentzial bilakatu zen (Pujal, 2002).

Modu horretara, Donna Harawayk (1991 in Gil, 2002) sexu/genero binomioaren terminoaren erabilpenean nabarmenki eragiten duten hainbat autore feminista aipatzen ditu. Hala, Gayle Rubinek (1975) dioenez, generoak sexualitate biologikoa sistema sozialen araberrako giza praktiken objektu bilakatzen du. Hots, emakumeen zapalkuntzan oinarritzen den derrigorrezko heterosexualitatearen existentzia epaitzen du, irtenbide askatzailea ahizpatasunaren iraultzan finkatzen duelarik. Era berean, Adrienne Richek ere (1980), emakumeen oinperatzaile nagusia den erregimen hetero-normatiboa kritikatzeko, emakumeen arteko ahizpatasunean laburtzen den "continuum lesbiano" deritzon kontzeptua proposatzen duelarik ihesbidetzat. Aitzitik, Monique Wittigek (1981) ez ditu lesbianak emakumetzat jotzen, heterosexualitate arautuaren politikaren disidente direnez gero, beraiengan bermatzen duelarik emantzipazioaren ardatza. Bestalde, ikuspegi marxistatik abiatuta, Catherine MacKinnon (1982) autoreak generoaren definizioan desioari egiten dio errepara: "La sexualidad es ese proceso social que crea, organiza, expresa y dirige el deseo, creando a los seres sociales que conocemos como hombres y mujeres, mientras que sus relaciones crean a la sociedad (...) la expropiación organizada de la sexualidad de algunas para el uso del otro define al sexo, a la mujer" (in Haraway, 1991: 238-242). Azkenik, perspektiba semiotikoari dagokionez, Teresa de Lauretisek (1984, 1985) generoa emakume, gizon eta subjektibitatearen ekoizpen semiotiko bezala ulertzen du (in Haraway, 1991, in Gil, 2002).

Nabaria denez, sexu/genero sistema bitar honen subertsioan, (trans)feminismoak azken hamarkadetan esparru akademiko zein sozialean egindako lanketari zor, gero eta barneratuago daukagu generoa zein feminitatea eta maskulinitatea eraikuntza soziokulturalak diren ideia. Hots, genero erregimen dikotomiko honek ez duela sortze natural bat, diskurtso desberdinetan erditu diren bi kategoria hegemoniko direla baizik (Aizpuru eta Altonaga, 2007). Hala ere, oraindik, zailagoa suertatzen da gorputz sexuatuak ere, oinarri biologiko objektiboa eta unibertetsala dutela diruditen horiek, mota desberdinetako konstrukzio-prozesuen produktu direla onartzea (Reverter, 2012).

Hala nola, Denise Riley eta Joan W. Scott historialari feministek arrazoitu dute, Michel Foucault zein beste autore post-estrukturalisten intzidentzian, gorputzak, diferentzia sexuala eta generoa, kontestuaren menpeko kategoria hutsak direla, eta, beraz, kontestu horietan sortzen diren marko diskurtsiboetan soilik dutela zentzua: "The body is a concept, and so is hardly intelligible unless it is read in relation to whatever else supports it and surrounds it" (Riley, 1988: 104).

Era berean, Judith Butlerrek ere aldarrikatu zuen ez direla gorputz pre-diskurtsiboak existitzen, gorputzak normaren botere performatiboaren eraginez diskurtsiboki eraikiak direla, eta generizazio-prozesurik egon ezean sexu-biologikoa ere ez litzatekeela existituko (Butler, 2018). Honen inguruan aritzen da bere *Genero nahasmendua* liburuan:

Sexuaren eta generoaren arteko bereizketa “biologia patua da” delako argudioari kontra egiteko sortu zen, eta modua ematen du argudiatzeko generoa kulturalki eraikia dela, sexuaren itxurazko zurruntasun biologikoa gorabehera: generoa ez da ez sexuaren ondorio kasuala ez sexuak dirudien bezain finkoa. (...) Generoa bada gorputz sexudunak hartzen dituen esangura kulturalen bilduma, ezin daiteke inolaz ere esan genero bat sexu batetik eratorria denik. Bere mutur logikora eramanda, sexu/genero bereizketak aditzera ematen du ez dagoela inolako lerro jarraiturik gorputz sexudunen eta kulturalki eraikitako generoaren artean. (...) Areago, nahiz eta morfologiari eta osaerari dagokionez bi sexu baino ez egon itxura batean (eta hori ere ezbaian jarriko dugu), ez dago arrazoirik pentsatzeko generoak ere bi izan behar direnik (Butler, 2018: 56).

Horregatik, pertsona bakoitzak bere gorputza, sexualitatea zein izatea nahi duen moduan bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du Sanchez-Sainzek (2010), horretarako, hezkuntza planetan aniztasunari lekua egin behar zaiola azpimarratuz. Izan ere, eskola edo hezkuntza gutxiengo desberdinetako umeen integrazioa berma dezakeen eragile nagusienetakoa baita, gizarte kohesiorako tresna (Bronfman eta Martinez, 1996).

2.2. GENERO ANIZTASUNA HAUR HEZKUNTZAN

Sexu-genero sistema bitarra egungo jendartearen dimentsio guztietan horren errotuta dagoen perspektiba denez gero, lekua hartzen jarraitzen du hezkuntzari dagokion esparruan ere, bere premisa nagusienetakoa den inklusibitatea etengabe urratuz.

Izan ere, nahiz eta 1989. urtean *Gender and Education* aldizkariaren sorrerak hezkuntzak genero ikasketetan izan beharreko inplikazioan mugarri bat jarri, irakasleei zein hezkuntza komunitate osoari dagokionez, nabaria da genero aniztasunaren lurralde honekiko kontzientziazio zein ezagutza eza (Gonzalez, 2009).

Hain zuzen ere, Amparo Morenok baieztatzen duen moduan, nahiz eta hezkuntza genero identitate hegemonikoak iraultzeko esparru pribilegiatua izan, oraindik ere hauek iraunarazten jarraitzen du, sistema bitarraren eta generoen arteko osagarritasunaren

diskurtsoak kontserbatzen dituen bitartean. Hau, besteak beste, testu liburuetakoko edukietan, irakasleen jardunean, neska eta mutilen zuzentzeko jarrera edo hizkera desberdinetan edota eskolako goi-karguetako emakumeen absentsian gorpuetzen da (Rodríguez, 2011). Eskola mailan kokatzen diren jazoera hauek beraz, haurrei subjektuen kontzeptualizazioa dikotomikoa garatzen laguntzen die, maskulinitate zein feminitate eredu hegemonikoak barneratuz (Connell, 1995), eskolan ere sozietate hetero-patriarkaleko botere harreman berberak islatzen direlarik (Francis, 1997 eta 1999; Sánchez, 2014). Ondorioz, gauzak aldatzen doazen arren, hezkuntza sistema oraindik ere sexismoaren igorle garrantzitsua izanik, ez da izan beharko litzatekeen eremu askatzailea (Odriozola, 2007).

Errealitate hau salatu ez ezik irauli nahian Platerok (2014) behin eta berriz azpimarratzen du, generoaren normatibitatearen gainean zuzen ibiltzen ez diren umeei jasaten dituzten biolentzia orok inguruko helduen ezjakintasunean duela sorburu. Izan ere, gizartean genero aniztasunaren inguruan dagoen kontzientziazio eza bitarte, haurrek beraien errealitate pertsonala ulertzeko ezintasuna edukitzeaz aparte, gainerakoengandik bazterketa nozitzeko arriskua izan ohi dute, txikitatik genero marka edo rolak oharkabean barneratzen dituztelako (Lewis in Sánchez, 2009).

Horregatik, genero arauekin bat ez datozen haurren egoera zaila izan ohi da eta ezinbestekoa da inguruko helduak genero aniztasunaren inguruan kontzientziatuta egotea, ahal duten heinean pertsona hauek normaltasunaren periferiara ez bultzatzeko (Alvarez-Uria eta Gorrotxategi, 2017). Hala, heldu bezala gure zeregina inongo epai, erabaki ez aurreiritzirik burutu gabe haurrei entzutean datza, ezinbestean direnaren inguruko erantzun zehatz eta finko bat edukitzera derrigortu gabe (Brill eta Pepper, 2008).

Aurreko guztia kontuan izanik eta *Moio* liburuari ikasita, argi dago sistema bitarra autokritikaz erantzun behar diogun auzi bat dela, guregan barneratuta eta aktibatuta dauzkagun biolentziak desaktibatuzeko bidean (Miner, 2019).

2.3. QUEER PEDAGOGIA

Eskola aukera parekideak eskaintzen eta errespetuan oinarritzen den hezkuntza ahalbideratzen duen espazio seguru zein askatzailea izan beharko litzateke (Fernández-Batenero, 2005). Baina egun ez da hau errealitatea eta indarrean dagoen hezkuntza sistema ereduak ikasle asko baztertzen ditu.

Preseski, Sigmund Freuden hitzetan esanda, "pedagogiaren diskurtsoa gatazkatik at egiten da, zorientasunaren edo konponbidearen logikan". Hori kontuan izanda, 'bestea', ezohikoa dena eta beraz zalantza sortzen duen oro, bazterrera dago kondenatua. Izan ere, hezkuntzak, anbiguotasuna saihestuz, ezagutza objektiboaren espazio sortzailea izan nahi duen bitartean, normaltasunaren markoa gainjartzen jarraitzen du.

Hala, hezkidetzaren elkarbizitzaren marko gisa finkatu daiteke, hots, eskola inklusiboaren logikan koka gaitzake. Baina, inklusioa xede izanda, argi dago ikasle anitzak klasean izate hutsak ez duela berez eskola inklusiboagoa bilakatzen. Benetako inklusioa gerta dadin, ikasle horiek klasearen parte sentitu behar dira, parte hartzeko eskubide berdina dutela bermatuz. Honi guztiari irtenbidea emateko, Beatriz Preciado filosofo eta queer aktibistak, eskoletan normaltasunaren mitoarekin hautsi eta identitate iraultzaile zein transgresoreak defendatuko dituen queer pedagogia ezartzean ikusten du gakoa (2003).

Hain zuzen ere, Queer deritzon teoria honek, aniztasuna giza dimentsioen alde positibotzat jotzen du eta ez ordea, mehatxutzat. Are gehiago, pedagogia feminista hau opresioen interseksionalitatea edo elkargunea bere baitan hartzen duen teoria bat da (Torres, 2011; Planella eta Pie, 2012). Izan ere, pedagogia queerraren marko ideologikoa transfeminismoan koka daiteke. Marko teoriko-politiko horrek egiazat hartzen diren hainbat kontzeptu iraultzeaz gain, hezkuntzara ekarri beharreko zenbait betebeharrak ere ezartzen ditu (Britzman, 2000). Hala nola, kolokan jartzen ditu binarismoa, esentzialismoa eta pedagogia bera. Beraz, ideologia honek, gizon-emakume edo heterosexual-homosexual bezalako giza sailkatzaile diren kategoria unibertsalak baztertzen ditu, hau da, etiketak arbuatzen ditu (Herrera, 2011).

Modu horretara, identitateak denbora eta testuinguruaren araberrako eraikuntza sozial gisa ulertzen ditu queer pedagogiak (Jagose, 1996), besteak beste, generoaren atzean egiazko eredu hegemoniko originalik existitzen ez dela argudiatuz. Funtsean, pedagogia queerrak ardatza normaltasunetik urruntzen du, nola edo hala eguneroko praktikan transgresioa, eztabaida, gatazka eta deserosotasuna txertatzeko helburu nagusiarekin arrakaletan daudenak erdigunera ekarriz (Kopelson, 2002).

Baina, inklusibitatea eta aniztasuna helburutzat dituzten estrategiak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa da norabide horretan irakasleen formazio egokia bermatzea (Hyun, 2001), eskola inklusiboak, egungo hezkuntzan ez bezala, heterogeneotasuna balioesten baitu (Ortiz, 2007). Beraz, hezkuntza sistema honetako partaide den irakasle orok premisa

hau jarraitu beharko luke, ikasle guztien irakaskuntza-ikaskuntza prozesu, lorpen, meritu zein ongizatea lehenetsiz (Ainscow, 2001).

Horregatik, aurreko guztia ahalbidetzeko, halaberharrez irakasleak kontzientziatuta egon behar dira, besteak beste, sexualitatea, genero aniztasuna eta orientazio sexuala bezalako gaien inguruan, gizarteko uste oker inposatzaile zein estereotipoekin puskatuko duen informazioa helarazi ahal izateko haurrei (Platero, 2014).

3. HELBURUAK

Ondorengoak dira honako lan honen bitartez lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Egungo hezkuntza sistemak genero ikasketen inguruan dituen gabeziak ezagutzea.
- Irakasleek genero aniztasunaren inguruan duten kontzientziazioa, ezagutza eta formakuntza maila aztertzea.
- Galdetegien bidez irakasleak genero aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea, eta gaien inplikatzearen ezinbesteko garrantziaz ohartaraztea.
- Irakasleen hausnarketa bultzatzea, sistema bitarra kritikoki aztertzeo aukera izatea, genero aniztasunaren errealitatearen aurreiritziei aurre egin diezaieten.
- Etorkizun hurbilean ikasleei genero perspektiba zabalago batetik eskola eman ahal izateko asmoz argibide eta errekurtsoak eskaintzea.

4. METODOA

Segidan, Gradu Amaierako Lan hau burutzeko funtsezkoak izan diren metodoaren hiru alderdi deskribatu dira. Hasteko, partaideak izeneko atalean lanean parte hartu duten pertsonak aurkezten dira. Jarraian, testigantzetako informazioa biltzeko erabilitako tresnak azaltzen dira. Azkenik, lan hau egiteko egin den bidea eta prozedura adierazten dira.

4.1. PARTAIDEAK

Honako lan hau burutzea ahalbidetu duten partaideak ugariak izan diren arren, hiru lagin nagusitan sailka daitezke parte-hartzaileak.

Alde batetik, Berritzeguneko Genero arduraduna dugu, Bea Ugarte Maiztegi izenekoa. Filosofia eta Hezkuntza-Zientzietan lizentziatua, Emakume eta Gizonen

Berdintasunaren Gaineko Masterraren (UPV/EHU) egileetako bat eta Bigarren Hezkuntzako Etapan aholkulari eta formatzaile lanetan aritua.

Bestetik, Ane Zurutuza dago, Gasteiz aldeko eskoletan genero ikasketen inguruan diagnosi bat egiten dabilen Gasteizko Udaleko hezkidetzaren saileko langilea.

Hirugarrenik, 2019-2020 ikasturtean Gipuzkoako eskola batean lanean dabiltzan Haur Hezkuntzako 6 irakasle ditugu. Aipagarria da, irakasleen profila aski homogeneoa dela, guztiak emakumezko helduak direla kontuan izanik (39-60 urte bitartekoak).

Alegia, aipaturiko hauen guztien parte hartze, laguntza eta testigantzei esker, preseski, lan honen lehengaita izan den informazioa bildu ahal izan da.

4.2. TRESNAK

4.2.1 Tresna metodologikoak

Lan hau aurrera eramateko bi tresna metodologikoz baliatu gara: Gasteizko Udaleko langilearekin izandako elkarrizketa eta Berritzeguneko kideari zein hautatutako eskolako irakasleei eginiko bi galdetegiak, hain zuzen ere.

Hortaz, beharrezko informazio guztia lortu ahal izateko erabili diren bi teknikak, bai galdetegiak, bai elkarrizketa, metodo kualitatiboaren ikuspegitik landu direla esan daiteke.

Hala, Gasteizko Udaleko kidearekin, aurrez antolatu gabeko elkarrizketa hurbil bat eramanean zen aurrera, egiten zebilen diagnosi lana dela medio, bisitatu zituen eskoletako egoeretikozuen pertzepzio, sententzio eta informazio oro aditzeko asmoz.

Berritzeguneko kidearekin izandako topaketa berriz, egituratuagoa izan zen. Funtsean, aurrez zehazturiko galdetegi baten inguruan sustraitu baitzen bilkura. Hala eta guztiz ere, helburua hertsiki lotua zegoen arestian aipaturiko elkarrizketarekin. Kasu honetan ere, egungo hezkuntza sistemaren baitako irakasle taldea genero ikasketetikoz aurkitzen zen puntuaren inguruko kanpo hautemate edo iritzi aditu bat lortu nahi baitzen galdetegiaren bidez. Hala, ondorengoak izan zen Bea Ugarteri eginiko galdera sorta:

Berritzeguneko kideari elkarrizketa

1. Nola definituko zenuke gure jendarteko sexu/genero sistema?
2. Zein paper jokutzen du hezkuntzak sistema horretan?
3. Hezkuntza zein egoera edo puntutan dagoela esango zenuke genero ikasketei dagokienez?
4. Badago generoa auzitan jartzen duen irakaslerik? Hezkuntzan generoari begiratzeko ikuspegi bitarra eta aniztasunaren ikuspegia islatzen direla uste duzu?
5. Irakasleek generoaren inguruko formakuntza jasotzen dute? Zenbateraino dago haien borondatearen gain prestakuntza hori?
6. Zein gai lantzen dituzue nagusiki zuen formakuntzetan? Zer dute helburutzat?
7. Zein izaten da irakasleen jarrera edo erantzuna formakuntza horietan?
8. Zein izan ohi dira erresistentzia ohikoenak?
9. Zein gai edo alorretan sumatzen duzu ezjakintasun nabariena?
10. Zer egin beharko luke hezkuntza-komunitateak egoera hau hobetzeko?

Amaitzeko, Gradu Amaierako Lan honen bidez ikertu nahi izan den subjektu konkretua, Haur Hezkuntzako irakasleak dira. Hala, Gipuzkoan kokatzen den ikastetxe bateko Haur Hezkuntzako irakasleei, kanpo begiradak jaso ostean zuzenean haien ahotsen lagin bat jaso ahal izateko, genero aniztasunaren gaiarekiko zuten kontzientziazio eta ezagutza maila ezagutzeko xedea zuen ondorengo galdetegia luzatu zitzaizen birtualki:

Irakasleei elkarrizketa

1. Nola definituko zenuke aniztasuna? Zein da hezkuntzarekin duen harremana?
2. Nola definituko zenuke dikotomia edo binarismoa? Zer da sistema bitarra? Eta hezkuntzarekin zerikusirik duela esango zenuke?
3. Nola definituko zenuke sexua? Eta generoa? Bi hauen artean harremanik dagoela esango zenuke?
4. Nola definituko zenuke genero identitatea? Hezkuntzarekin loturarik duela esango zenuke?
5. Zer deritzozu genero aniztasunaz? Eta genero binarismoaz? Hezkuntzan nola kokatuko zenituzke? Hezkuntzak zer egin beharko luke horiekiko?
6. Ezagutzen duzu hezkidetzak? Nola definituko zenuke? Eta entzun duzu Pedagogia Queerrari buruz hitz egiten?
7. Eskola esparru inklusiboa, askatzailea edo segurua dela esango zenuke?
8. Zein esango zenuke dela, 1etik 10era, aipatutako kontzeptuen inguruan duzun informazio edo ezagutza maila?
9. Garrantzitsua iruditzen zaizu irakasleak gai honetan formatuta egotea? Zergatik?

10. Hezkuntzan lan egiten duzuetik jaso duzu inoiz generoaren inguruko formakuntzarik? Eta jaso nahiko zenuke? Zeri buruzkoa zehazki?

4.2.2. Ikaskuntza zerbitzua

Gradu Amaierako Lan honen baitan Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioan hartu da parte. Hau, ikasketa (asmo pedagogikoa) zein erkidegoarentzako zerbitzua (asmo solidarioa) uztartzen dituen hezkuntza-proposamen edo proiektua da.

I+ZSren marko pedagogikoa, ekintzan eta hausnarketan oinarritutako ikasketaren sorkuntzatik erditzen da eta protagonisten interesa komunitatearen aldeko zerbitzura bideratzen du, ikasketa eta herritartasunaren jardun aktiboa lotuz. Modu horretara beraz, parte-hartzaileek ikasteaz ez ezik, inguruko beharrian errealetan ere jarduten dira, egoera hobetzeko helburua bitarte.

Hala, Haur Hezkuntzako irakasleoa genero aniztasunaren inguruan sentsibilizatu eta formatzeko asmoz, 10 orduko formakuntza eta infografia bilduma bat diseinatu ditugu. Behin, egungo hezkuntza sistemak genero ikasketetan dituen hutsuneak ezagututa, irakasleek genero perspektiba zabalago batetik eskola eman ahal izateko argibide eta errekursoak luzatzeko xedearekin.

4.3. PROZEDURA

Jarraian, lan honen baitan izandako prozedura edo fase ororen deskribapen kronologikoa dago.

Modu horretara, lehenik eta behin, jorratu beharreko gaien behar bezala kokatzeko, dokumentatze edo errebisio bibliografikoaren lanak burutu ziren, genero aniztasunaren inguruko teoria adituez hornitzeko asmoz. Horretarako, noski, iturri fidagarrietan egin zen kontsulta oro.

Behin eduki teorikoz jantzita, egungo Haur Hezkuntzako irakasleek gaiarekiko duten ezagutza eta inplikazio maila zuzenean aztertzeko prozesua martxan jartzeari ekin zitzaion. Hots, arestian aipaturiko elkarrizketa eta galdetegiak burutu ziren.

Hala, ezagutzen lehenengoa Beatriz Ugarte izan zen, elkarretaratze hau 2020ko martxoaren 2an jazo zelarik, partaidearen ohiko lantokia den Gasteizko Berritzegunean.

Bertan, aurrez zehazturiko hamar galderez itaunka sortu zen elkar banaturiko jarduna. Aipagarria da, galdetegi honen eskema edo galderen ordena aitzinetik kontzienteki antolatu izan zela, lau zati desberdinetan banatuz galdetegiaren izaera.

Galdetegi honen bitartez, egungo hezkuntza sistemako irakasleek genero aniztasunaren inguruan duten ezagutza edo kontzientziario mailarekiko lehen ikuspegi jakintsu eta osatu bat eskuratu nahi izan zen.

Hala, lehen partaide hau izan zen bigarren elkarrizketatuarengana iristeko zubi lanak egin zituen. Izan ere, Beatriz Ugarte bera izan zen berekin izandako topaketan estreinakoz Ane Zurutuzaren izena aipatu eta Gasteiz aldeko eskoletan egiten zebilen diagnosi lanaren berri eman zuena.

Modu horretara, aste betera, 2020ko martxoaren 11n, zehazki, Ane Zurutuzari elkarrizketa ireki bat burutu zitzaion Gasteizen. Izandako bigarren elkarrizketa honen helburua, aurretik Berritzeguneko kidearekin izandakoaren antzerakoa izan zen. Hau da, irakasleei galdetegia egin aurretik, genero ikasketen arloan jakitun denaren solas kritikoari tiraka, egungo hezkuntza sistema aurkitzen den panoramarekiko ikuspuntua gehiago osatzea. Horrez gain, lan honetan gerora irakasleei egin beharreko galdetegia burutzeko zentroen aukeraketan kontuan izan beharreko irizpideen inguruan ere galdetuko zitzaion partaideari.

Hori horrela izanik, Gasteizko Udaleko langilearekin izandako hizketaldiak hiru ardatz nagusi izan zituela esan daiteke. Alde batetik, mintzaldiaren hasierako hizketa gaia elkarrizketatua egiten zebilen diagnosi lanaren azalpenen zein justifikazioan laburtu zela esan daiteke. Horren ostean, lan horren baitan bisitaturiko eskoletan topatutako egoera orokorra helarazi zuen, honekiko zuen sentsazio edo iritzi pertsonala gehituz. Azkenik, dagoeneko egindako diagnosiaren zatian aurkitutakoren arabera, elkarrizketatu beharreko irakasleen ikastetxea aukeratzeko hainbat argibide eskaini zituen, galdetegia burutzeko aproposa ikusten zituen Gasteizko bost eskolen zerrenda luzatuz.

Hori kontuan izanik, hurrengo pausoa, aholkaturiko eskola horiekin harremanetan jartzea izan zen, beraien zentroan galdetegia egitea posible izango zenentz galdetuz. Mezu horretan, galdetegiaren eskaerarekin batera, genero aniztasunaren inguruan osaturiko hamar orduko formakuntza bat ere eskaintzen zitzaien eskola horretako Haur Hezkuntzako irakasleei.

Baina, jasotako erantzunak ez ziren baiezkoak izan, egun horietan suspertzen ari zen osasun krisialdi ez ohikoa zela medio. Izan ere, COVID-19 koronabirusak EAEko lurralde osoan izandako bilakaeraren ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila zein Hezkuntza Sailaren jarraibideei men eginez, herrialdeko eskola orok bere aurrez aurreko jarduera guztia eten egin zuen kontrakoa jakinarazi arte. Baina, eskolen jarduna ez ezik, gizarte osoko ohiko jarduna ere eten zen. Hain zuzen ere, 2020ko martxoaren 14an, egun Espainiako presidentea den Pedro Sanchezek konfinamendu goi agindua ezarri baitzuen estatu osoan. Neurri horrekin, biztanle guztiei, zehaztutako zenbait ekintza egin behar ezean, etxetik ateratzea debekatu zitzaien.

Aurreko guztia kontuan izanik, eta Gasteiz kutsadura foku edo epizentro nagusienetakoa zela aintzat hartuz, ezinezko bihurtu zen irakasleei presentzialki galdetegia burutzearen hasierako ideia. Horrekin batera, Ikaskuntza-Zerbitzuaren baitako formakuntza eskaintzearen aukera ere guztiz deuseztatu eta bertan behera geratu zen.

Honi guztiari alternatiba bat bilatu eta lana aurrera ateratzeko irtenbideren bat bilatu nahian, azkenean, iraganean harreman zuzena izandako Gipuzkoako ikastetxe batekin bertako Haur Hezkuntzako irakasleei eskatu zitzaien galdetegia era birtualean burutzea eta hala egitea adostea lortu zen.

Gauzak horrela, galdetegia *Google Drive Inprimakiak* plataformaren bitartez helarazi zitzaien prest azaldu ziren ikastetxe horretako irakasle guztiei. Luzatutako galdetegiaren helburu nagusia bertako irakasleek genero aniztasunaren inguruan zuten ezagutza, informazio eta kontzientziazio mailak neurtzea zen.

Hala, galdetegia hamar galderaz zegoen osatua. Lehen zatian, hainbat galderen bitartez generoa, sexua, genero aniztasuna, sistema bitarra eta Queer Pedagogia bezalako kontzeptuak definitzea eskatzen zitzaien. Jarraian, horiek guztiak hezkuntza sisteman, eta beraz, beraien jardunean duten leku edo garrantzia adieraztera bideratzen ziren galderak. Amaitzeko berriz, genero aniztasunaren edo ikasketen inguruan duten ezagutza mailaren inguruan itauntzera bideratu ziren galderak, faltan sumatzen duten eta jasotzea gustatu litzaieken formakuntzaren inguruan ere galde eginez.

Behin aurreko fase guztiak burutu eta beharrezko datu guztiak eskuartean izatean, jasotako informazioa analizatu eta interpretatzeari ekin zitzaion, jarraian dauden emaitzak ateratzeko asmoz. Azkenik, emaitza horiek kontuan hartuz formakuntza izan behar zena

infografiez osatutako ikas-material bihurtu zen. Galdekatutako irakasleei bidali zitzairen irakurri eta jarduerak egin zitzaizten eta haien balorazioa eskatu zen.

5. EMAITZAK

Aurreko metodoaren atalean azaldu den moduan, lan honetan erabilitako informazioa lortzeko hiru baliabide desberdin erabili dira: galdetegiaren bitarteko elkarrizketa, elkarrizketa formal edo irekia, eta bakarkako galdetegi anonimoak.

Hala, jarraian, esku hartze horietan lorturiko datuen analisi eta interpretazioan ateratako emaitzak azaleratzen dira. Ondorengo informazio guztia hiru atal nagusitan dago banatuta, informazio iturriaren arabera, hain zuzen ere. Modu horretara, lehenengo, Berritzeguneko genero arduraduna den Bea Ugarterekin izandako jarduna azaltzen da. Horren ostean, Gasteiz aldeko eskoletan genero ikasketen inguruko diagnosi lana burutzen dabilen Gasteizko Udaleko Ane Zurutuza langilearekin izandako elkarrizketaren emaitzak ekarri dira. Azkenik, eskola bateko Haur Hezkuntzako sei irakasleri genero aniztasunaren inguruan birtualki luzatutako galdetegian eskuraturiko datuak ezagutarazten dira. Azkenik, hiru iturrietatik jasotako informazioaren laburpena eta erkaketa dago.

5.1. BEA UGARTERI GALDETEGIA

Bere biografia profesionala dela eta, adostu zen Bea Ugarterekin elkarrizketa bat aurrera eramatea, bere esperientzia eta jakituriak lan honi ekar diezaiokeen informazioa erabilgarria izan zitekeela baloratuz. Izan ere, genero ikasketen inguruan aditua izateaz gain zuzenean aritzen baita irakasleei generoaren inguruko formakuntza ematen.

Hala, lan honetan jorratu nahi den gaian behar bezala kokatzeko asmoz, prestaturiko galdetegiaren lehenengo itaunean bere hitzekin sexu/genero sistema bitarra definitzea eskatu zitzaion Ugarteri. Hortaz, aurretik azaldutako bere perfila kontuan izanik, galdera horri behar bezala erantzuteko haina ezagutza bere alde zuela agerikoa da. Hala, bere hitzetan, sexu/genero sistema egungo gizartea antolatzeeko sistema bat da. Are gehiago, binarismoan oinarritzen den eta kolektiboen arteko mailakatze edo zapalkuntzak bermatzen dituen sistema zurrun bezala zehaztu zuen.

Behin sexu/genero sistema definituta, kontzeptu horretan hezkuntzak jokatzen duen rolaz galdetu zitzaion, erantzuna ondorengo izan zelarik: «hezkuntza potentzial handiko gizarte eragilea den heinean, ezinbestekoa da sexu/genero balore sistema honen aurrean

posizio bat hartzea. Hori kontuan izanik, eredu honekin apurtzeko klabea hezkuntza eredu askatzaile bat gauzatzean ikusten dut nik».

Hezkuntza-komunitatearen paperari tiraka, egungo hezkuntza sistema genero ikasketei dagokionez aurkitzen den puntuaren inguruan hitz egitea eskatu zitzaion ondoren, bere erantzuna kritikotasun osoz eraiki zuelarik:

Azken urteotan hezkuntzan ez ezik jendarte mailan kontzientziazio eta inolukrazio mailan aldaketa handiak ari dira ematen feminismoari dagokionez, honen apologia nabarmena eman delarik gizarteko hamaika alorretan. Orain, moda, gorakada edo loraldi horri heldu beharra dago, gizartean ideia asko errotzeko aukera ematen baitu, baita okerrak bezain zabalduak dauden beste hainbat uste deuseztatzeko ere. Baina, jakin egin behar da aukera honi nondik eta nola heldu probetxuzkoa izan dadin, bestela kontrako efektua izan baitezake. Izan ere, sistema oso abila da eta jakin badaki feminismoak heteropatriarkatuan oinarritzen den bere egitura osoa hankaz gora jartzea duela helburu. Horregatik, hemendik eredu eraikitzaile eta askatzaileak sortzeko, adi ibili beharra dago, ezustean irtenbidea aurkari bilakatu ahal baitu sistemak. Guzti honekin esan nahi dudana zera da, egungo testuingurua oso aproposa dela irakaslegoa genero ikasketek duten garrantziaz kontzientziatzeko eta formatzeko. Hain zuzen ere, aurrera goazen arren, bidean egiteko daudenak ugariak baitira. Baina, horretarako erabiliko diren neurri, teknika edo metodoak aurrez kritikotasunez pentsatuak izan behar dira, zehatzak eta eraginkorrak izango direla ziurtatuz. Esan bezala, bestela borroka guzti honek konnotazio negatiboa har baitezake hezkuntza esparruan ez ezik, gizarteko biztanleriaren zati batengan duen pisu eta garrantzia gutxiestera bultzatuz.

Aurreko guztia kontuan izanik eta irakasleen subjektuarekiko duen pertzepzioarekin jarraitzeko, genero aniztasunaren inguruan irakasleek izan ohi duten ezagutza maila edo jarreraz galdetu zitzaion. Galdera honekiko Ugartek izandako erantzuna, irakasleek genero aniztasunarekiko eszeptiko eta ezjakin azaltzen diren ideian laburtu daiteke. Izan ere, behin eta berriz azpimarratzen zuenaren arabera, oraindik irakasleak zeharo errotuta daude genero dikotomian, hots, mutil eta nesken existentzia hutsean. Horren harira, Ugartek helarazi zuenez, transexualitatea adibidez, ulergarriagoa suertatzen zaie egungo irakasleei, funtsean gure jendartean bi lurralde horietako batetik bestera igarotzean definitzen baita azken hau. Baina, irakasle gehienei lurralde horien artean dagoen continuuma bistaratzea oraindik oso zaila egiten zitzaiela aitortu zuen. Elkarrizketatuak tinko baieztatu

zuenez: «orokorrean, oraindik ez da genero aniztasunean sinisten, ez da binarismorik transgreditzen».

Azalduriko egoera etsigarri horren kausa edo erroetara iritsi nahirik, egungo hezkuntza sistemako irakasleei eskaintzen zaizkien formakuntzaren inguruan itaundu zitzaion, prestakuntza hauek jasotzea hein handi batean irakasleen borondatearen gain zegoenentz planteatuz. Gai honi dagokionez, jakina den moduan eta elkarrizketatuak ere aipatu zuen eran, goi kargu edo instituzioek ez diote behar beste garrantzi aitortzen genero, sexualitate eta tankerako gaien heziketari, hezkuntza planetan ezinbestean hartu beharko luketen lekua ukatuz. Beraz, erlatibizatu egiten direla salatzen zuen Berritzeguneko kideak. Horrekin batera, arestian planteaturiko hipotesia baieztatu ere egin zuen, ondorengo hitzak erabiliz: «baliabide, formakuntza eta mintegiak egon badauden arren, ez dira derrigorrezkoak. Hori hala izanik, bai, esan dezakegu bakoitzaren interes, nahi edo borondatearen gain erortzen dela bereziki gaien formatzearen hautua».

Behin formakuntzen gaien murgilduta, elkarrizketatuak berak eskaintzen duen formakuntzaren puntuari eutsi zitzaion elkarrizketaren amaiera ingurura arte berak formatzaile moduan izandako ibilbidea izan zelarik jardunaren hizketa gaiaren ardatz.

Aipagarria da luzea dela irakasleei formakuntzak eskaintzeari dedikatu dion denbora tartea. Oro har, aditzera eman zuenez, eskaintzen dituen formakuntza edo ikastaroetako gaiak anitzak izan ohi diren arren, hertsiki lotuak egon ohi dira beti sexu/genero gaiiei. Funtsean, hauen bitartez lortu nahi den helburuaren oinarria berbera baita, alegia, hezkuntza eredu askatzailea eraikitzeko bidean irakasleak formatzea. Horretarako, batzuetan saioak bideratzeko kanpoko profesional bat bertaratu ohi izan dela kontatu zuen Ugartek. Hala, besteak beste, ondorengoak dira 2019-2020 ikasturte honetarako zehaztuta zuen kronogramako gaietako batzuk: ipuinak genero ikuspegitik (Virginia Imazekin), maskulinitateak eta mikromatxismoak (Xabi Odriozolarekin) eta ziberjazarpenak (Igor Gaminderekin).

Eskaintzen dituen formakuntza horietan izandako bizipenetatik abiatuta, irakasleekiko duen inpresio orokorraz aritu zen hizketan jarraian, erantzunetan helarazitako mezua argia izan zelarik.

Hala, elkarrizketatuak berresten zuenez, oro har formakuntzak jasotzen dituzten irakasleen ehuneko handienaren balorazioa guztiz positiboa izan ohi da. Hori hala izateko, formatzaileak berebiziko garrantzia eman zion ikastaroaren antolaketa, egitura edo izaerari.

Hau da, irakasleei eskainitako espazioa edo giroa atsegin, hurbil eta eroso izatea ezinbestekotzat jotzen zuen, harremana eta komunikazioa hurbilekoak izan daitezen eta beraz, ikasketa esanguratsua eman dadin:

Formakuntzetan jendeak elkar ezagutu dezake, gaiarekiko ardurara eta kezkarako aukera ematen duen lekua da, eztabaidarako parada, gaiaren inguruan gehiago ezagutzeko aukera baliatzen duen espazioa, besteak beste. Baina hau guztia gauzatu dadin, ezinbestekoa da elkarrekiko komunikazioa hurbila izatea, bestela irakasleak ez dira zabaltzen eta hortaz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eten egiten da.

Izan ere, berak ondo zioen moduan, formakuntzetan lantzen dituzten gaiak oraindik egungo testuinguru sozialean konplexuak izaten jarraitzen dute, normalizatuta ez egoteaz gain ez baitago ezagutza handirik jendartean. Are gehiago, hein batean gai tabuak direla ere esan daiteke. Hori kontuan izanik, irakasleek formakuntzetan azaltzen dituzten erresistentzia ohikoenak, dituzten beldur edo ezezaguetatik eratorriak direla baieztatzen zuen genero arduradunak. Zehatzagoak izateko, hainbat kasu konkritu aipatu zituen: «honen adibide garbienak irakasleek ikasgelako egunerokotasuneko jardunetan egin beharreko aldaketak identifikatzerako orduan izan ohi dituzten zailtasunak dira, baita familiekin hitz egiterakoan dituzten barne murrak ere». Hala, orokorrean jendartean, genero identitatea bezalako gaiak azaletik ulertzeko joera gailendu dela zioen, horrek irakasleak «komodismo» jarrera hartzerara bultzatzen dituela salatuz: «gaia tribializatzen denez gero, ez da duen transfondoa bistaratzen. Horregatik, batzuetan irakasleek formakuntzetan lantzen diren eduki edo puntu batzuk gehiegizko, edo absurdotzat jotzearen jarrera azaltzen dute». Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi izan zuen orokorrean bere formakuntzetara bertaratu ohi den irakasleen jarrera guztiz positibo eta prestua izan ohi dela. Hots, gogotsu azaltzen direla ikasteko, edo hobeto esanda, lehenik eta behin gaizki ikasiak desikasteko.

Behin ordura arte aipaturiko informazio guztia elkarbanatuta, egungo hezkuntza sistemako irakasle goa genero aniztasunarekiko kokatzen den egoeraren markoarekiko ikuspegi orokor bat eskuratu zela begi bistakoa da.

Hortaz, elkarriketarekin amaitzeko, hezkuntza-komunitateak egoera hau aldatzeko prozesuan izan behar lukeen jarrera edo betebeharraren inguruan galdetu zitzaien. Bere erantzuna original bezain adierazgarria izan zen. Izan ere, bere diskurtsoan sarri erabili ohi duen «A,E,I,O,U» deituriko ondorengo hitz jokoarekin itxi zuen galdetegia:

- A: **aliatuak** izatea hezkuntza zentroan.
- E: **esperientziak** trukatu edo konpartitzea hezkuntza-komunitatean.
- I: **informazio** eta prestakuntzak jasotzea.
- O: **orainetik** eragitea eta jardunaren **ordena** mantentzea egindakoa sistematizatuz.
- U: **utopia** eta **umorea** presente izatea.

5.2. ANE ZURUTUZARI ELKARRIZKETA

Arestian azaldu den moduan, Bea Ugarteren bitartez jakin zen Ane Zurutuza izeneko Gasteizko Udaleko langile bat hiriko eskoletan genero ikasketen inguruan diagnosi lan bat egiten zebilela. Hortaz, horren jakinaren gainean egon bezain pronto, berarekin kontaktatu eta lan honetako bigarren informazio iturri bilakatu zen. Horretarako, elkarrizketa ireki eta formal bat gauzatu zitzaion.

Modu horretara, hizketaldiarekin hasteko, burutzen zebilen lanaren nondik norakoan inguruan galdetu zitzaion. Adierazi zuenaren arabera, Gasteizko Udalaren agindupean burutzen zebilen diagnosi lanaren eginkizun edo helburu nagusiak Gasteizen zehar kokatzen diren eskoletan genero ikasketen inguruko kontzientziazio, parte-hartze edo ezagutza maila aztertzean datza. Hori ahalbidetzeko, elkarrizketatua, banan-banan, eskola zerrenda horretako zentro bakoitzera bertaratzeaz arduratzen delarik, ikustatu beharreko alderdi desberdinak gertutik aztertzeko asmoz. Diagnosi horren bitartez, genero ikasketei dagokienez, kokaleku geografiko zehatz horretako eskolen situazioaren informazio eguneratua lortu nahi da.

Behin bere lanaren funtsa argi utzita, hezkuntza sistema eta genero ikasketen artean izan beharreko erlazio estua arrazoitzera bideratu zen konbertsazioa. Horren harira, ondorengoa izan zen Zurutuzak plazaratu zuen gogoeta:

Genero identitatea, norbanakoaren dimentsio edo alderdi guztiak zeharkatzen dituela kontuan izanik, egungo gizarte egituraren pisu handiena duen identitatetzat jo daiteke. Baieztapen hori aintzat hartuz, begi bistakoa da hezkuntzak genero ikasketekiko duen konpromisoaren dimentsioa zabala dela, nahiz eta errealitate edo praktikan hala ez suertatu.

Nabarmentzekoa da, elkarrizketatuak behin eta berriz azpimarratzen zuela literalki hezkuntza komunitateko partaideak generoaren inguruan formatuak egon beharko

liratekeela gai emergente bat zelako. «Kontzientziak ez ezik, jardunak ere aktibatu behar dira egungo hezkuntza ereduan aldaketak gauzatu nahi badira», zioen.

Izan ere, egindako diagnostikoan oinarrituz, oraindik oro har irakasleek edukietan hutsune handiak dituztela berretsi zuen. Horrekin batera, irakasleek genero aniztasuna bezalako gaiekiko duten ezezagutza haurrekiko dituzten esku hartze edo interbentzio guztietan islatzen dela zioen. Hortaz, zera ondorioztatzen zuen: «zuzenean edo zeharka, kontziente edo inkontzienteki haurrak ideologia binarista eta matxista batetik hezten dira, egungo gizarteko ideologia hegemonikoaren baldintzapean».

Hori guztia kontuan izanik, lehenago esan bezala, beharrezko eta emergentetzat jotzen zuen egungo hezkuntza eredu mixtotik oinarritzat pedagogia askatzaile edo feminista bat izango zuen beste hezkuntza eredu berri baterako trantsizioa ematea. Horretarako, ezinbestean irakasleak, besteak beste, genero aniztasunaren inguruan formatuta egon behar direla baieztatuz.

Baina, burutzen zebilen lanean zehar topo egindako egoerak analizatu ostean, apustu hori erreal bilakatzeko arduradun nagusienak goi instituzioak zirela zioen elkarrizketatuak. Izan ere, bere pertzepzioa irakasleen aldetik aldatzeko eta ikasteko aurretiko jarrera oro har denek partekatzen zuten. Hala zioen:

Azterturiko eskoletako irakasleen jarrera orokorrean egokia da, gehiengoa prest agertzen da gaiaren inguruan gehiago ikasteko. Hala, gutxi dira hezkuntza metodo zein ideologia tradizional zurrunei leial mantentzen direnak. Bestalde, jada gai hauen inguruan kontzientziatuta dauden eta hezkuntza askatzaile baten alde borrokatzen duten irakasleen ehuneko txiki bat ere bada. Azken hauek, banakako edo taldeko lan militante handia egiten dutela aipatu beharra dago, bakoitzak eskura dituen baliabideei tiraka formatzen eta ezagutzaz hornitzen saiatzen direlarik, inguruan pixkanaka eragin, kontzientziak astindu eta egoera aldatzeko asmoz. Baina, hala eta guztiz ere, eskoletan eta hezkuntzan modu zabal batean benetako aldaketa gauzatzeko hezkuntza planteamendu integral bat behar da eta horren eragile zuzenak zentroetako irakaslegoa baino gorago kokatzen diren karguak dira, instituzioak.

Hain zuzen ere, egungo egoera hobetzeko irtenbidea proposamen pedagogiko integral berritzaile batengan zentratu zuen. Hots, era koherente eta zabal batean hezkuntza-komunitateko partaide oro kontuan hartuko duen hezkuntza estrategia batengan, zehazki.

«Horrela soilik lortuko da hezkuntza eredua ez ezik, eredugarria izango den hiri modelo berri bat eraikitzea» esanez ipini zuen solasaren puntua.

Elkarrizketa bukatutzat emateko, egindako diagnosian lortutako emaitza kontuan izanik, lan honen baitan gerora kontsultatu beharreko irakasleen zentroen proposamen zerrenda bat igorri zuen (ikus 1. eranskina).

5.3. IRAKASLEEI GALDETEGIA

Aurretik aipatu den moduan, egun, COVID-19 osasun krisialdia dela medio gizartea pairatzen dabilen egoera berria eta ez ohikoa dela eta, irakasleei egin beharreko galdeketa Ane Zurutuzak proposaturiko Gasteizko zentroetan burutzea bideraezina bihurtu zen.

Hortaz, iraganean kontaktua izandako Gipuzkoako eskola bati helarazi zitzaion bertako Haur Hezkuntzako irakasleei galdegegia egiteko eskaera. Zorionez erantzuna baiezkoa izan zen. Modu horretara, bertako sei irakaslek beraien testigantzak konpartitu zituzten birtualki luzatu zitzaizkien hamar galdereri bakarka eta anonimoki erantzunez. Honen bitartez, egungo irakasleek genero aniztasunaren inguruan duten ezagutza, formakuntza eta kontzientziazio maila era zuzenean azertu nahi izan da. Hala eta guztiz ere, gorago adierazi den lez, azpimarragarria da partaideen lagina dezente homogeneoa izan zela, irakasle guztiak emakumezko helduak zirela aintzat hartuz gero.

Jarraian, galdegegia horietan pilatutako erantzunetatik eratorritako informazioa analizatuz ateratako emaitzak azaltzen dira. Horretarako, galderen izaera kontuan izanik emaitzak ondorengo hiru azpigai nagusitan banatu dira: kontzeptuak definitzen, hezkuntza komunitatearen papera, eta irakasleen formakuntza.

5.3.1. Kontzeptuak definitzen

Galdegegian zehar genero aniztasunaren gaiak barne hartzen dituen hainbat eduki edo kontzeptu definitzea eskatu zitzaion irakasleei. Aniztasuna, dikotomia, generoa, sexua, genero identitatea, sistema bitarra, genero aniztasuna, hezkidetzeta eta queer pedagogiaren inguruan itaundu zitzaion, zehazki. Galdera horien bitartez, aztergai den materiarekiko zuten ezagutza edo maila teorikoa bistaratu nahi izan da. Beraz, kontzeptuak definitzen izeneko atal honetan galdera horiei emandako erantzunen emaitzak azaltzen dira.

Hala, aniztasuna definitzerako orduan parte hartzaile guztiak bat etorri ziren kontzeptu horrek pertsonen arteko diferentzia dimentsionalari egiten ziola erreferentzia esanez.

Horrekin batera, dikotomia hitza ere denei zitzaien ezagun, emandako erantzun oro egokia izan zela kontuan izanik. Izan ere, partaide guztiak dikotomia edo binarismoa osotasun baten zatiketan sortzen diren bi aldeen aukera bezala definitu zuten.

Generoaren eta sexuaren kontzeptuen esanahiei dagokienez ere, elkarren arteko adostasuna erabatekoa izan zen, parte hartutako irakasle guztiak, bai sexua eta baita generoa ere, gizakiaren ezaugarritzat hartzen baitzituzten. Zehatzago esateko, sexua biologiarekin lotu zuten eta generoa berriz, sorkuntza sozialtzat jo zuten denek. Hala, guztiak bi kontzeptu hauen artean lotura bat egon bazegoela ere baieztatu zuten. Horren harira, bi irakasle izan ziren, aniztasunaren eta inklusioaren izenean, onartutako lotura hori apurtu egin behar zela aipatu zutenak. Bi irakasle hauek, pertsona transei egin zieten erreferentzia beraien erantzunetan.

Idea honetan sakontzeko, galdetegian genero identitatearen inguruan hitz egiteko eskatu zitzaien. Kontzeptu honen inguruan jasotako definizio orokorra norbanakoak bere generoarekiko duen sentimendu edo adierazpena zela izan zen. Aipatzekoa da, sei erantzunetatik bost hortik haratago joan zirela genero identitate anitzak daudela erantzunez. Hots, irakasleen gehiengoak ohiko maskulinitate eta feminitate hegemonikoez gain, beste identitate batzuk ere badirela aipatu zuten beraien erantzunetan.

Gutxiago izan ziren sistema bitarra definitzeko gai izan zirenak, bi irakaslek soilik aitortu baitzuten terminoa ezagutzen zutela. Hain zuzen ere, azken hauek, neska eta mutilen sailkapen hutsean oinarritzen den egiturari laburtu zuten sistema bitarra.

Horrekin batera, bi irakasle berberak, denetatik gazteenak zirenak, izan ziren genero aniztasuna eta genero binarismoaren inguruan galdetu zitzaienean hauen inguruko ezagutza adierazi zuten bakarrak. Bestalde, gainontzeko hiru irakasleetatik bik, terminoak sekula entzun ez zituztela aitortu zuten. Geratzen den beste partaideak berriz, kontzeptuak ezagutzen ez zituela onartu arren, hitzei erreparatuz suposizio bat egin zezakeela esan, eta azkenean, definizioak helarazi ahal izan zituzten.

Amaitzeko, beraien ogibide den irakasle lanbidea kontuan hartuz hurbilago sentitu beharko lituzketen hezkidetzak eta queer pedagogia adigaiak zuten ezagutza plazaratzea

eskatu zitzairen. Hala, berdintsuak izan ziren, paraleloki, bi galderetan irakasle guztiek izan zituzten erantzunak. Izan ere, hezkidetzaren partaide guztiek ezagutzen zuten, generotik at berdintasunean oinarritzen den pedagogia bezala identifikatu zutelarik. Bestalde, queer pedagogiari dagokionez ordea, galdetegia luzatu zitzairen sei irakasleak guztiz ezjakin agertu ziren.

5.3.2. Hezkuntza-komunitatearen papera

Bigarren zati honetan, irakasleen arabera arestian planteaturiko kontzeptu horiekiko guztiekiko hezkuntzak duen zer ikusi edo harremana aztertzen da. Beraz, jarraian sei irakasleen erantzunetatik abiatuta ateratako emaitzen interpretazio orokorra testuratu da.

Erantzunetan irakasleek behin eta berriz zioten moduan, hezkuntza eta gizartea hertsiki lotuta daude nahi eta nahi ez. Funtsean, eskola sozietatearen isla izateaz gain, gizarte eragile nagusienetakoa ere badela aintzat hartu behar dela errepikatuz. Gauzak horrela, egungo jendartean dauden aniztasun dimentsionala (soziala, kulturala, identitarioa, sexuala, fisikoa, funtzionala, etab.) ikasgeletan ere irudikatzen dela zioten. Aurreko guztia kontuan izanik, desberdintasun horietatik at inklusioa bermatzearen ardura hezkuntza komunitateko partaideen jardunaren gain erortzen zela arrazoitzen zuten galdetegian parte hartu zuten irakasleek.

Jarraian, marko edo ideia hori genero identitatean zentratu zuten, igorritako ideia nagusia aurretik planteaturiko hausnarketaren erreplika izan zelarik. Hots, irakaskuntza egungo gizartean derrigortzen diren genero hegemonikoekin hausteko bidean oinarritzeko pieza zela onartzen zuten irakasleek.


Horregatik, gizarte zein hezkuntza eredia hobetzeko bidean ezinbestekotzat ikusten zuten irakasleak “kontzeptuak definitzen” atalean jorraturiko kontzeptuetako eduki eta ezagutzez erabat hornituta egotea. Modu horretara, egoera korapilatsuak identifikatu, neurriak planteatu eta behar bezala esku hartu edo jardun ahal izango zutela ulertzera emanaz.

5.3.3. Irakasleen formakuntza

Amaitzeko, galdetegian landutako gai edo edukien inguruan zuten formakuntza mailaz itauntzera bideratzen ziren galderetan eskuratutako informazioa plazaratu da honako sail honetan.

Hain zuzen ere, irakasleen formakuntza mailaren inguruan ahalik eta datu zehatzenak biltzeko asmoz, zuten formakuntza maila 1etik 10erako eskalan ebaluatzeko eskatu zitzaizaien parte hartzaileei.

Hala, bertan izandako erantzunen datuak ondorengo grafikoan islatu dira:



1. irudia: Irakasleen formakuntza maila

Irakasleen erdiek, zuten ezagutza maila 6aren baliokidetzat jo zuten, hots, nahikotzat. Beste irakasle batek berriz, 5a hautatu zuen bere ezagutza justua zela esanez. Amaitzeko, gainontzeko bi irakasle gazteenen ustetan, zuten ezagutza maila ona zen, formakuntza nibela 7arekin ebaluatu zutela aintzat hartuz.

Datu horiek kontuan izanik, nabarmentzekoa da, irakasleen gehiengoak zuten ezagutzaren iturri nagusia barne lanketa indibidual edo pertsonaletik eratorria zela aipatu zuela. Horrekin batera, guztiek aditzera eman zutenenez, irakaskuntzan izandako urteetan era formalean jasotako formakuntza urria izan zen.

Amaitzeko, aurreko guztia kontuan izanik eta irakasleei egindako galdetegiarekin amaitzeko, azpimarragarria da partaide guztiek genero identitatearen inguruan informazio, formakuntza edo ikastaro gehiago jasotzea asko eskertuko luketela aitortu zutela.

5.4. EMAITZEN KONPARAKETA

Emitzen zatiarekin amaitzeko, ondorengo taularen bitartez, aurreko hiru ataletan jasotako datuen arteko konparaketa sintetikoki burutu nahi izan da.

	BEA UGARTE	ANE ZURUTUZA	IRAKASLEAK
Irakasleen formakuntza maila eta jarrera	<ul style="list-style-type: none"> - Genero aniztasunarekiko ez ezagutza eta eszeptizismoa: binarismoan errotuta. - Erresistentziak azaltzen dituzten arren ikasteko prestutasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaiarekiko eta edukiekiko ezagutza falta. - Perfil desberdinak dauden arren, jarrera egokia, ikasteko gogoia gailentzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez ezagutza nabaria termino zein gaiarekiko orokorrean. - Duten erantzukizunaz jakitun, ikasteko gogo handia.
Egoeraren arrazoa	<p>Goi instituzioek genero ikasketei hezkuntza planetan izan beharko luketen lekua ukatzen diete, haren garrantzia erlatibizatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleen derrigorrezko formakuntza ez bermatzea 	<p>Goi instituzioek irakasleen derrigorrezko formakuntza ez bermatzea.</p>	<p>Goi instituzioek irakasleen derrigorrezko formakuntza ez bermatzea.</p>
Irtenbidea	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza planak aldatuz, eredu askatzailea gauzatzea. - "A,E,I,O,U" 	<p>Proposamen pedagogiko integral eta berritzailea: eredu mixtotik pedagogia feministara.</p>	<p>Hezkuntza planetan irakasleen nahitaezko formakuntza bermatzea.</p>

Hortaz, arazoa da irakasleek ez dutela gaia ondo ezagutzen, baina ikasteko prest daude. Erakunde publikoek horren aurrean ez dute gaiaren lanketa errazten, nahiz eta argi dagoen elkarrizketatuen hitzen arabera, hezkuntza plangintzaren eraldaketan dagoela gakoa.

6. ONDORIOAK

Egungo jendarteko aniztasuna interseksionala da, besteak beste, klase, etnia, genero eta funtzionaltasunaren dimentsioen arteko gurutzaketei egiten baitie erreferentzia pluralismo horrek. Hortaz, jakina den moduan, ikastetxeetako ikasgelak aniztasunaren testigu nagusienetakoak bihurtu dira azkenaldian. Hala, indarrean dagoen hezkuntza sistemari edo eredu hegemonikoaren eraginkortasunari hamaika gabezia azaleratu zaizkio, segregatzailea izatearen ondorioz.

Izan ere, eskola bada sozietatean gailentzen diren praktika, jarduera, iritzi eta ezagutzen igorle zein arduradun nagusietako bat. Are gehiago, hezkuntza jendarte kohesiorako tresnatzat jo izan ohi da, hala nola, hedabideak, familia eta mugimendu politikoarekin batera eragile sozial nagusietako bat dela kontuan izanik (Cox, 2007). Hortaz, hezkuntza zentroak ezagutzak gauzatu eta erreproduzitzeko espazioak izateaz gain, jendartea erregulatzeko tresna direla ere esan daiteke (Tedesco, 1996).

Horregatik guztiagatik, hezkuntza sistemaren diskurtso eta praktikaren oinarria jendarte inklusibo eta askatzaile bat eraikitze markoan egon beharko litzateke kokatuta. Hori bermatzeko bidean, beraien gain erortzen den ardura guztia kontuan izanik, ezinbestekoa izan beharko litzateke irakasleen formakuntza integrala ziurtatzea (Romero eta Abril, 2008).

Baina, argi ikusienez, tamalez hau ez da egungo errealitatea, eta pedagogiaren diskurtsoa normaltasun eta objektibotasunaren lerroen gainean jarraitzen da eraikitzen. Aurretik aipatu bezala, eskola egungo jendarteko eredu hegemonikoak iraultzeko leku pribilegiatua izan daiteken arren, testu honetan landutako genero aniztasunaren gaien zentratuz, sexu/genero sistema bitarraren eta sailkapen hauen arteko osagarritasuna legitimatzen dituen bitartean, segregatzaile izaten jarraitzen baitu (Odriozola, 2007). Hain zuzen ere, balore mekanismo honek hierarkia baten bidez funtzionatzen du, zeinetan hainbat pertsona edo ezaugarri zehatz beste batzuen gainetik gailentzen diren (Rubin, 1975), kasu honetan, identifikazio-sistema horrek mutil eta nesken arteko dikotomiari egiten dio erreferentzia. Gauzak horrela, anibalentzia baztertzeko den heinean, ezjakintasuna dela medio, aniztasuna alde duen ikasle oro periferiara edo baztertera dago kondentatua (Alvarez-Uria eta Gorrotxategi, 2017).

Preseski, lan honen helburua egungo Haur Hezkuntzako irakasleek genero aniztasunaren inguruan duten ezagutza, kontzientziario eta formakuntza maila aztertzea da. Horrela, irakasleak gai honekiko duten ezezagutzaz ohartu ziren lanaren prozesuan zehar buruturiko elkarrizketen eta galdetegiaren bitartez era zuzenean, egin-eginean ere konfirmatu ahal izan da baieztapen hori. Hau da, jendarteko tabuak direla medio, oro har, irakasleek oraindik ez dute genero aniztasunean sinesten, ez da binarismorik transgreditzen.

Laburbilduz, genero estereotipo trinkoak malgutzen doazen arren, oraindik ere neska eta mutilen sailkapen dikotomikoan daude errotuta irakasleak, alegia, bi lurralde hauen izate huts eta bereizlean iltzatuta. Gauzak horrela, esaterako transexualitatea bezalako kasuak ulergarriagoak zaitzaizkien arren, ez dute generoaren lurralde horren baitako kontinuuma bistaratzen, hor tartean gauza asko baitaude, azaldu behar direnak, leku edo izate horiek ere aldarrikatu eta aitortu ahal izateko.

Modu horretara, sexu/genero sistema bitarraren iruditegi kolektibo hori Haur Hezkuntzako egunerokotasuneko hamaika alorretan islatzen da, besteak beste, haurren testu liburu edo ipuinetan, abestietan, familia eredu normatiboetan, eskolako

estamentuetako langileen banaketan, edota helduek haurren generoaren arabera erabiltzen duten hizkera, tonu, zein espektatibetan (Rodriguez, 2011).

Izan ere, iristen zaizkien ideiak jasoz genero eredu hegemonikoak barneratzen dituzte haurrek eta beraz, heziketaren bitartez jendarteko generoaren pertzepzio bitarra haurren identitateetan txertatzen joaten da (Beauvoir, 2019). Izan ere, helduak umeen erreferentziazko pertsonak direnez gero, duten ezjakintasuna dela medio genero dikotomian errotuta dauden bitartean, haurrak ere hautemate horretaz jabetuko dira. Ia gertagaitza baita haurrek igortzen ez zaizkien beste eredu batzuk zilegiak diren ideia beraien kabuz garatzea, munduarekiko duten ezagutza ikusten eta helarazten zaienaren arabera sortzen dutela kontuan izanik (Winnicott in Talburt eta Steinberg, 2005).

Gauzak horrela, genero dikotomiaren arauen disidentzian bizi diren haurrak gutxiengoa dira, bizitzen duten errealitate pertsonala jendartean kokatuta ulertzeko inongo baliabiderik ez dutela. Gainera, inguruko helduen ezjakintasunaren ondorioz sorturiko mesfidantza eta gutxiespena bitarte, gutxiengoa izatera ez ezik zapalduak izatera ere daude bideratuta (Platero, 2014).

Hain justu ere, hori saihestea eta konpontzea da Pedagogia feminista edo Queerraren proposamenaren xede nagusia. Hots, errespetu, tolerantzia eta integraziotik urrunago kokatzen den pedagogia bat ezartzea, benetan bazterrean daudenak erdigunera ekartzeko behingoagatik (Preciado, 2005). Alegia, teoria honek, identitate transgresoreak aitortzearen bitartez, hezkuntza sistemak normaltasunaren kontzeptuaz duen pertzepzioa irauli nahi du, horren ondorio diren botere harreman dimentsional oro hausteko helburuarekin batera (Kopelson, 2002).

Baina, hezkuntza politikan dimentsio horretako aldaketak emateko ezinbestekoa da irakasle oro marko berritzaile horretan kokatua egotea (Hyun, 2001), hots, beharrezko baliabide material zein teorikoz hornituta daudela ziurtatzea. Izan ere, lan honetan iturri desberdinetatik lorturiko informazio guztiari erreparatuz gero, nahiz eta orokorrean dirudienez ikasteko prest azaldu, argi dago egungo irakasleek genero ikasketen inguruan duten ezagutza edo formakuntza maila oraindik urria dela.

Hala, egungo hezkuntza saileko instituzio edo goi karguen jarduna jotzen da egoera horren erantzule zein arduradun nagusizat. Egiazki, ez baitute aitortzen genero ikasketek hezkuntza planetan eduki beharko luketen lekua, benetan duten pisua erlatibizatzerara arte. Modu horretara, egungo hezkuntza sistema ereduaren eta horren parte diren langile ororen

jardunaren erantzule direnez gero, beraiengan egoten jarraitzen du hezkuntza estrategia edo planteamendu integral berritzaile eta askatzaile bat osoki martxan jartzearen ardura.

Azken batean, sexu/genero binarismoa transgreditzea beharrezkoa bezain emergentea den asuntza dela baieztatu daiteke, justizia eta askapen sozialaren bidean. Gauzak horrela, hezkuntza alorrean egungo erronka pedagogiko pisutsuenetakoa bilakatu da, irakasleak sentibilizatu, kontzientziatu eta formatzearen bitartez soilik lortuko baita beraien jardun eta diskurtsoan egiazki eragitea, kohesio soziala xede. Halaber, etorkizuneko irakasle izango diren irakasle eskoletako ikasleen genero ikasketen inguruko formazio jarraia bermatzea ere arras garrantzitsutzat jotzen da. Aurreko guztia kontuan izanda, argi geratzen da irakasleen hasierako zein prestakuntza jarraia une oro errealitatearekiko etengabeko hausnarketa bultzatu beharko lukeena dela, kritikoa eta “besteak” existituko ez den jendarte zein hezkuntza eredu askatzaile bat eraikitzeke erronka errealitatean legitimatu eta beraz, gorpuzteko asmoa duena.

7. IRAKASLEENTZAT SORTUTAKO MATERIALA

Aurretik plazaraturiko guztia kontuan izanda, agerikoa da hezkuntza eredu askatzaile berri baterako bidean ezinbestekoa dela irakasleak behar bezala formatuta egotea. Horregatik, egungo gabeziak josten hasi eta etorkizun hurbilean umeak genero perspektiba zabalago batetik hezi ahal izateko asmoz, irakasleak formatzeko ondorengo materiala sortu da.

7.1. FORMAKUNTZA

Genero aniztasunaren inguruko formakuntza edo zerbitzu bat diseinatu da, Haur Hezkuntzako irakasleagoa gaiaren inguruan sentibilizatu eta formatzea duelarik helburu nagusitzat. Proposamen honek guztira hamar ordu biltzen ditu eta lau saio desberdinetan dago banatuta (ikus 2.eranskina).

7.2. INFOGRAFIA

COVID19 osasun krisialdiak formakuntzak eskaintzea oztopatu duenez gero, bertan planteaturiko eduki oro modu sintetiko, bisual eta argian helarazten duen infografia bilduma osatu da (ikus 3.eranskina).

7.2.1. Irakasleen balorazioa

Sorturiko infografia bilduma lan honetan parte hartutako Haur Hezkuntzako sei irakasleei bidali zitzairen, honen balorazioa egiteko eskatuz. Hala, mezu bakarrean helarazi zidaten. Ondorengo izan zen irakasleek materialaren inguruan eginiko hausnarketa.

Infografia hau benetako marko teorikoa da, oso zehatza eta aberatsa generoaren ikuspegiaren gaiaren inguruan. Tresna hau erabilgarri bezain eraikigarria izan zaigu, gure burua kokatzen eta gure sinesmenez jabetzen lagundu baitugu. Izan ere, maiz, urteen inertziak eta gizarteak bultzatuta, okerreko moduan jokatu dugu, jakituria eta kontzientziario eza bitarte.

Infografia honen helburua, hezitzaileari bere burua kokatzen laguntzea da, irakasleen jardunak gai honetan duen berebiziko garrantziaz ohartaraziz. Hala, generoaren ikuspegia ikasgelan nola lantzen den eta haurrak libreki nola hezi beharko lirakeen inguruko hausnarketa sakona ahalbidetzen du.

Egiazki, gaiaren ezagutza teorikoak hausnarketara bultzatu gaitu. Hain zuzen ere, uste dugu ezagutza eta kontzientziarioa dela, prozesu eraldatzailearen, jarreraren eta sinesmenen aldaketan lehen pausoa. Horregatik, sinesten dugu infografiak generoarekiko dugun jarrera okerrean eta ikasgelan gertatzen diren auziez jabetzen lagunduko digula.

Kontzientzia eta integrazioa prozesu luzea da, eta uste dugu infografia hau hezitzailearentzako prestakuntza pertsonalaren printzipioa dela.

Oro har, gure buruak gai honen errealitatera hurbiltzeko lan ona iruditu zaigu.

Irakasleen hitzak aintzat hartuz, esan genezake infografiak bete dutela aurrez zehazturiko egitasmoaren helburua, hots, irakasleak genero aniztasunaren inguruan sentsibilizatu eta formatzea. Izan ere, parte hartzaileek aitortu dutenez “erabilgarri bezain eraikigarria” izan zaie sorturiko materiala genero ikasketen eremuan beraien buruak kokatu eta ezagutzeko bidean.

Jakina da, hutsuneak handiak direnez egin beharreko bideak lan handia suposatzen du eta, esan bezala, material hau hurbilpen txiki bat baino ez da. Hala eta guztiz ere, egiazki, uste dut lan honek lagundu diela irakasleei auzi honen aurrean duten erantzukizun mailaz ohartarazten, hau da, kontzientziak pizten. Hain zuzen ere, sortutako infografiaren bitartez irakasleak hausnarketara bultzatu baitira, sistema bitarra kritikoki aztertzeke aukera ahalbidetuz, beraien jardun edo egunerokotasunean, ezagutza eta formakuntzaren bitartez, genero aniztasunaren errealitateen aurreiritziei aurre egin ahal diezaieten.

8. HAUSNARKETA

Burututako Gradu Amaierako Lan honen bitartez egungo hezkuntza sistema genero ikasketekiko non dagoen argitzen, ikuspegi osatu bat eskuratzen lagundu dit. Modu horretara, irakaskuntza munduak gai honekiko dituen gabeziak lehenengo pertsonan ezagutu eta aztertu ditut.

Hala, generoaren inguruan lanean aritu naizen honetan, profesionalki zein indibidualki formatu naizela esan dezaket. Izan ere, lanean jorraturiko markoan teorikoki sakonago ahalduntzeaz ez ezik, pertsonaletik ere jaso dudala ohartu naiz.

Hau da, alde batetik, jakintzaz hornitu naiz, marko teorikoa osatzeko bidean irakurritako guztiak eta geroago elkarrizketatutako profesionalak iturri izanik. Modu horretara, eta irakasleekin izandako kontaktua medio, irakaskuntzak auzi honen aurrean duen erantzukizun pisutsuaz are kontzientzia gehiago hartu dut, egoera hau iraultzeko erronkan paper aktiboa izateak duen garrantziaz sentsibilizatzeko (hezkuntza formal, ez-formal zein informalean) lan egingo dudala nire buruarekin promes eginez. Egiazki, aurretik esan bezala, nahiz eta lan hau egin beharreko lanketarekiko hurbilpen soila besterik ez izan, prozesuan zehar irakasleekin zuzeneko hartu-emana izateak eta sorturiko materiala berauekin konpartitzeak, lanari zentzua, egiazkotasuna eta hein batean bizi-esperientzia eman diola uste baitut.

Bestalde, adimen emozionala edo intrapertsonaletik eraiki naiz. Hots, lan honek eta prozesuan bizi eta hausnartutakoak, ariketa edo memoria zein omenaldi pertsonal bezala balio izan didala sentitzen dut. Alegia, nire egia, izate edo esperientziak eta teoriaren arteko berrelikaduratik erditu den lan bezala konprenitzen dut honakoa.

Beraz, amaitzeko, esan nahiko nuke lan honetan profesionaletik aritu arren, pertsonaletik entzun, ikusi eta ulertu dudala nire burua.

ERREFERENTZIAK

Bibliografia

- Acuña, R. eta Sánchez, A. (2017). *Diccionario feminista para brujas y herejes*. [Irudia]. Webgune honetatik berreskuratua: <http://revistavacio.com/genero/feminismos-brujas/>
- Ainscow, M. (2001). *Desarrollo de escuelas inclusivas*. Madril: Narcea.
- Aizpurua, A. eta Altonaga, B. (2007). *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Alvarez-Uria, A. (2011). *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan* (Tesi doktora). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alvarez-Uria, A. eta Gorrotxategi, M. (2017). Genero desadostasuna Haur Hezkuntzan. Irakasle on erronka berria. *Tantak*, 29 (1), 95-122. doi: 10.1387/tantak.17867
- Beall, A. E., Eagly, A. H. eta Sternberg, R. J. (1993). *The psychology of gender*. New York: Guilford.
- Beauvoir, S. (2019). *Bigarren sexua*. Donostia: Elkar
- Brill, S eta Pepper, R. (2008). *The Transgender Child: A Handbook for Families and Professionals*. San Frantzisko: Cleis
- Britzman, D. (2002). La pedagogía transgresora y sus extrañas técnicas. In: Mérida, R.M. (Ed.). *Sexualidades transgresoras, Una Antología de estudios queer* (197-225 orr.). Bartzelona: Icària.
- Bronfman, A. eta Martínez, I. (1996). *La socialización en la escuela: una perspectiva etnográfica*. Bartzelona: Paidós.
- Butler, J. (2018). *Genero Nahasmendua. Feminismo eta identitatearen subertsioa*. Donostia: Elkar.
- Connell, R. (1995). *Masculinities*. Berkeley: University of California Press.
- Cox, C. (2007). *Educación y Cohesión Social: conceptos e ideas iniciales para un proyecto* (Trabajo Proyecto Nacsal). Cieplan: Santiago.
- Fernández-Batanero, J. M. (2005). ¿Educación inclusiva en nuestros centros educativos? Sí, pero ¿cómo?. *Contextos educativos: Revista de educación*, (8), 135-148.
- Fresnedo Moreno, I., Gabilondo Markes, J. eta Arremanitz Kooperatiba. (2018). *Betaurreko moreak gida: Haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuak*. S.I.: Gaztematika.
- Gil, E.P. (2002). ¿Por qué le llaman género cuando quieren decir sexo?: Una aproximación a la teoría de la performatividad de Judith Butler. *Athenea Digital*, 2, 30-41.
- González, R. M. (2009). Estudios de Género en educación: una rápida mirada. *Revista mexicana de investigación educativa*, 14 (42). Berreskuratua:

http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1405-66662009000300002

- Herrera, C. (2011ko maiatzaren 13a). La Teoría Queer: el fin de las dicotomías patriarcales. [Blogeko mezua]. Berreskuratua: <https://haikita.blogspot.com/2011/05/la-teoria-queer-el-fin-de-las.html>
- Hyun, E. (2001). *How do we prepare future early childhood teachers for developmentally and culturally appropriate practice*. Washington: ERIC.
- Izquierdo, M. J. (1998). *El malestar en la desigualdad*. Madril: Cátedra
- Jagose, A. (1996). *Queer theory: an introduction*. New York: New York University Press.
- Kopleson, K. (2002). Dis/integrating the gay/queer binary: "reconstructed identity politics" for a performative pedagogy. *College English*, 65 (1), 17-35.
- Medeak. (2013). Gorputz intsumisioen uluak II. *Genero ariketak. Feminismoaren subjektuak*. Donostia: EDO!
- Miner, K. (2019). *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen*. Donostia: Elkar.
- Odrozola, X. (2007). *Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena*. Donostia. Berreskuratua: <https://heterodoxia.files.wordpress.com/2007/11/sexismoaetaqizonena-skapenapdf.pdf>
- OIM. (s.f). *Buscando la cohesión social entre comunidades de acogida y migrantes*. [Irudia]. Webgune honetatik berreskuratua: <https://rosanjose.iom.int/site/es/blog/buscando-la-cohesion-social-entre-comunidades-de-acogida-y-migrantes>
- Ortiz, H. (2007). Formación del profesorado y atención a la diversidad: desafíos a los procesos de innovación curricular en educación inicial. *Revista Académica de la Universidad Católica del Maule*, 33, 45-60.
- Planella, J., & Pie, A. (2012). Pedagoqueer: resistencias y subversiones educativas. *Educación XX1*, 15 (1). 265-283.
- Platero, R. L. (2014). *Trans*sexualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bartzelona: Bellaterra.
- Preciado, B. (2003). Multitudes queer. *Multitudes*, (2), 17-25.
- Pujal, M. (2002). *Estudio de caso: el feminismo. Un movimiento social generador de saber crítico*. Universitat Oberta de Catalunya. Berreskuratua: <https://www.studocu.com/ro/document/universitat-oberta-de-catalunya/accion-colectiva/practic/lect8-pujal-m-2002-estudio-de-caso-el-feminismo-un-movimiento-social-generador-de-saber-critico/5776523/view>
- Ramírez, N. (2020). *Agujas cargadas: cuando el activismo feminista se logra volviendo subversiva la domesticidad. La artesanía feminista de los setenta abrió el camino. La cuarta ola ha capitalizado esta herencia*. [Irudia]. Webgune honetatik berreskuratua: <https://smoda.elpais.com/feminismo/agujas-cargadas-por-que-las-mujeres-que-bordan-tambien-son-revolucionarias-del-feminismo/>

- RedFeministaAntimilitarista. (2017). *Crearte la paz*. [Irudia]. Webgune honetatik berreskuratua: <http://www.redfeministaantimilitarista.org/lo-que-hacemos/pedagogias-feministas-populares/item/crearte-para-la-paz>
- Reverter, S. (2012). *Variaciones sobre género*. Castellón: Acen.
- Riley, D. (1998). "Am I that Name?" *Feminism and the Category of 'Women' in History*. Londres: Palgrave Macmillan.
- Rodríguez, C. (2011). *Género y cultura escolar*. Madril: Morata
- Romero, A. eta Abril, P. (2008). Género y la formación del profesorado en los estudios de Educación Infantil. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*. 11(3). 43-51.
- Rubin, G. (1975) 1986. El tráfico de mujeres: Notas sobre la "economía sexual" del sexo. *Revista Nueva Antropología*, 8, (030). 95-145.
- Sánchez-Sáinz, M. (2010). *Cómo educar en la diversidad afectiva, sexual y personal en la educación infantil: orientaciones prácticas*. Madril: Catarata.
- Sánchez, T. (2009) Desarrollo de la Identidad de Género desde una Perspectiva Psico-Socio-Cultural: Un Recorrido Conceptual. *Revista Interamericana de Psicología*, 43 (2). 250-259.
- Talburt, S. eta Steinberg, S. (2005). *Pensando queer: sexualidad, cultura y educación*. Bartzelona: Graó.
- Tedesco, J.C. (1996). La educación y los nuevos desafíos de la formación del ciudadano. *Nueva Sociedad*, (146), 74-89.
- Torres, G. (2011). Acerca de los usos, dificultades y posibilidades de la pedagogía queer. *Actas del IV Coloquio Internacional Interdisciplinario*. Buenos Aires: Universidad de Buenos Aires.
- UNESCO. (2018). *Gida Didaktikoa. Feminitate eta maskulinitate alternatibo askotariko eta berdinzaleak eraikitzen*. doi: BI-1053-2018
- (2019). 25 Nov hablemos de mujeres: *Día internacional contra la violencia de género*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.educandoenigualdad.com/2019/03/11/las-mujeres-del-dia-de-la-mujer/>

Webgrafia

- Cocq, K. (2016). *Monitología - Karina Cocq*. Webgune honetatik berreskuratua: <http://monitologia.blogspot.com/>
- Frago, N. (s.f). *Illustration & Design*. Núria Frago. Webgune honetatik berreskuratua: <https://nuriafrago.wordpress.com/>

Gauthier, M. (2012). *Manon Gauthier on Behance*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.behance.net/manongauthier>

TaPuntu. (2020). *Txakur Gorria: Autoedizioa lantzen duen sormen taldea*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://txakurgorria.eus/>

Roussey, C. (2009). *Christine Roussey*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.christineroussey.com/>

Vardimon, H. (2020). *Hagar Vardimon: Collage Artist*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.hagarvardimon.com/>

ERANSKINAK

1. Eranskina: Ane Zurutuzak gomendatutako eskolen zerrenda


- Antonio López de Gureñu Ikastetxea
- Salburua HLHI
- Umandi Ikastola HLHI
- Adurtza Ikastola
- Mercedarias
- Armentia ikastola
- Aranbizkarra Ikastola
- Divino Maestro Maria de Maeztu HLHI
- Errekabarri HLHI
- Ibaiondo HLHI

2. Eranskina: Formakuntza

GENERO ANIZTASUNA

Irakaskuntza zerbitzua

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Egilea: Irene Aizpurua Aranguren

Tutorea: Amaia Alvarez Uria

HELBURUAK

- Irakasleagoa genero aniztasunaren inguruan sentsibilizatu eta formatzea.
- Irakasleek sistema bitarrak dituen ondorioak ezagutzeko espazioak sortzea, parte-hartze aktiboaren eta ikuspegien eta bizi-esperientzien trukearen bidez.
- Irakasleen hausnarketa bultzatzea, sistema bitarra kritikoki aztertzeko aukera izatea, genero aniztasunaren errealitateen aurreiritziei aurre egin diezaieten.

PROGRAMAZIOA

- 1.saioa: 2 ordu (Gaiak kokatzen)
- 2.saioa: 3 ordu (Genero sistema bitarra eta honen disidentzia)
- 3.saioa: 3 ordu (Eskola eremu askatzailea da?)
- 4. saioa: 2 ordu (Queer pedagogia eta gure eboluzioa)

SAIOAK

LEHENENGO SAIOA (2 ordu)

GAIAN KOKATZEN

1. Formakuntzaren aurkezpena (5 minutu)

Lehenengo saio honekin formakuntzaren ongi etorria ospatzeko, lehenik eta behin zerbitzu honek ezarrita dituen programazio zein helburuak helaraziko dizkiot irakasleagoari. Horrekin batera, nire esker onak adierazteko tartetzat ere baliatuko dut une hau.

2. Taldeko presentazioa (15 minutu)

Giroa girotzeko, eta talde kohesioa sustatzeko asmoz, presentazio dinamika bati eutsiko diogu. Jarduera honetan pertsona bakoitzak bere buruaz adierazgarrien iruditzen zaizkion bi ezaugarri esan beharko ditu, bata fisikoa eta bestea berriz, barnekoa. Horrez gain, azken ezaugarri edo bereizgarri moduan, bere generoa zein den ere aipatu beharko du. Beti ere, hiru erantzun hauek arrazoitu edo justifikatu egin beharko dituztelarik.

Bestalde, presentazioekin amaitzeko ondorengo galdera honi erantzun beharko dio partaide bakoitzak:

- Zergatik izan daiteke formakuntza hau interesgarria niretzako?

3. Talde dinamika (25 minutu)

Aurreko ariketan generoari loturiko erantzunei tiraka, ondorengo dinamika aurkeztuko zaie irakasleei:

Partaide guztiak ikasgelan zehar libreki ibiltzen daude, musikarekin batera. Orduan, bakoitzari kolore bateko txarteltxo bat emango zaio eta bertan generoa hitza aipatzean burura datorkion lehenengo hitza idatzi beharko du. Behin idatzita, gurutzatzen diren kideekin txartelak aldatuz joango dira. Une batez trukutzen aritu oztean, eskuan duten txartelaren jabea aurkitu beharko dute, elkarren artean galdetuz ea zer den generoa berarentzat.

Behin bakoitzak bere txartela berreskuratuta, koloreen arabera bilduko dira taldeetan. Bertan, beraien ideiak partekatu eta azkenean genero kontzeptuaren inguruok definizio bat osatu beharko dute, gainontzeko taldeekin konpartitzeko.

4. Taldeko motibazio, espektatiba eta ezagutza maila ezagutzea (1 ordu)

Behin aurreko dinamika burututa, saio honetako mamari helduko diogu. Ekintza hau burutzeko, guztiok borobilean eseriko gara, atmosfera hurbil zein eroso bat formatzeko asmoz.

Hala, eztabaida talde bat sortuko dugu, jarraian testuraturik dagoen galdera sortari erantzunez. Baina lehenik eta behin banaka erantzungo diegu galderei, ostean taldekideekin eztabaidan konpartitzeko Honen helburua, irakaslegoak Genero Aniztasunaren inguruan duen ezagutza maila bistaratzean datza, beraz, hasiera batean nire interbentzioak urriak izango dira. Baina, noski, komenigarria ikusten dudanero, teoria edo kontzeptu egokiak helaraziko dizkiet partaideei. Modu horretara, besteak beste, binarismoa, generoa, sexua, estereotipoak, transgenero, transexual, cis eta ez binario bezalako kontzeptuak definituko ditugu.

➤ Ezagutzen inguruko galdetegia:

1. Nola definituko zenuke aniztasuna? Zein da hezkuntzarekin duen harremana?
2. Nola definituko zenuke dikotomia edo binarismoa? Zer da sistema bitarra? Eta hezkuntzarekin zerikusirik duela esango zenuke?
3. Nola definituko zenuke sexua? Eta generoa? Bi hauen artean harremanik dagoela esango zenuke?

4. Nola definituko zenuke genero identitatea? Hezkuntzarekin loturarik duela esango zenuke?
5. Zer deritzozu genero aniztasunaz? Eta genero binarismoaz? Hezkuntzan nola kokatuko zenituzke? Hezkuntzak zer egin beharko luke horiekiko?
6. Ezagutzen duzu hezkidetza? Nola definituko zenuke? Eta entzun duzu pedagogia queer-ari buruz hitz egiten?
7. Eskola esparru inklusiboa, askatzailea edo segurua dela esango zenuke?
8. Aipatutako kontzeptuen inguruan irakasle izateko informazio edo ezagutza egokia duzula esango zenuke?
9. Garrantzitsua iruditzen zaizu irakasleak gai honetan formatuta egotea? Zergatik?
10. Hezkuntzan lan egiten duzuetik jaso duzu inoiz generoaren inguruko formakuntzarik? Eta jaso nahiko zenuke? Zeri buruzkoa zehazki?

➤ Ogibidean izandako esperientzien inguruko galdetegia

1. Noizbait izan duzu genero arauak apurtzen zituen ikasleren bat ikasgelan?
2. Eduki badituzu, zein baliabide, erabaki, jarrera hartu dituzu?
3. Gainontzeko ikaskideek egoera ondo onartu dute edo genero arauak betetzen ez zituen haurra bazterturik egon da?
4. Eta helduen jarrerak nolakoak izan dira? (beste irakasleak, haurraren gurasoak, gainontzeko haurren gurasoak...)
5. Egun nola ikusten duzu zure burua horrelako egoera bati aurre egiteko? Baliabide nahikoak dituzula uste duzu?

5. Amaiera: sentimendu erronda (10 minutu)

Saio guztiekin amaitzeko sentimendu erronda bat egingo dugu, bertan saio honetan zehar izandako emozio, sentimendu, iritzia edo hausnarketak konpartituko direlarik. Ekintza honetan ez da derrigorrezkoa guztiek hitz egitea, nahi duen horrek bakarrik konpartitu dezala barruan daramana.

BIGARREN SAIOA (3 ordu)

GENERO SISTEMA BITARRA ETA HONEN DISIDENTZIA

1. Berotze dinamika: Zuhaitz zuria (20 minutu)

Saioarekin hasteko zuhaitz zuria izeneko jolasean ibiliko gara, horretarako borobilean jarriko garelarik. Jolas hau burutzeko ez da inolako materialik behar, oso sinplea da, baita interesgarria ere.

Jolas honekin hasteko pertsona batek (formatzaileak) gai bat pentsatu behar du bere baitan. Kasu honetan gaiak “generoa, sexua, maskulinitatea, feminitatea, transexualitatea eta genero aniztasuna” bezalakoak izango dira. Modu horretara, gai horietako bat hautatzean arduradunak banan banan hitza esango die belarrira gainontzeko kideei, baina ez ordea partaide guztiei. Hala, pertsona batzuei “Zuhaitz zuria” direla esango die ahopeka, beraz hauek ez dakite zein izango den erronda honetako gaia.

Jolas honen helburua pertsona bakoitzak, jarritako gaiarekin lotuta burura etortzen zaion hitza esatean datza. Modu horretara, zuhaitz zuria diren horiek disimulatu egin beharko dute beraien identitatea eta ustez harira doan beste hitz bat bota, jolasaren helburua zuhaitz zuriak aurkitzen datza eta.

2. Talde dinamika: Eserlekuak trukutzen (20 minutu)

Borobilean gaudela aprobeztatuz, eserlekuen dinamikari helduko diogu. Dinamika honetan hainbat baieztapen esango dira, eta identifikatuta sentitzen den oro jaiki eta borobilaren erdigunera altxatu beharko da. Beste pertsonaren bat jaiki baldin bada, lekuak trukatu eta hutsik geratu den beste sila batean eseri beharko dira.

Hala nola, ondorengoak dira erabiliko diren baieztapenak:

- Ile luzea daukat
- Bizarra daukat
- Besapean ileak dauzkat
- Belarritakoak dauzkat
- Janzten dudan arropari garrantzi handia ematen diot
- Nire itxura fisikoa zaintzea gustatzen zait
- Inoiz planteatu izan dut nire gorputzeko atal bat operatzea
- Dietan nago edo egin izan ditut
- Kirola egiten dut
- Depilatu egiten naiz
- Makilatu egiten naiz
- Gonak jaztea gustuko dut
- Nire itxura fisikoarekin eroso edo gustura sentitzen naiz

- Nire gorputzeko parte batekin konplexuak ditut
- Niretzat nahiko denbora daukat
- Bikotea daukat
- Bikote harreman heterosexuala daukat
- Heterosexuala naiz
- Nire sexualitatea zalantzan daukat edo jarri izan dut
- Gurasoa naiz
- Nire umea neska edo mutila da
- Ez dakit nire umearen generoa zein den
- Etxeko ardura gehienez arduratzen naiz
- Etxean garbitzailea daukat
- Garbitzailea emakumezkoa da
- Emakumea kanpotarra da
- Ni emakumea naiz
- Alua daukat
- Kafea gustatzen zait
- Zakila daukat
- Gizonezkoa naiz
- Txokolatea gustatzen zait
- Gauetan kalean beldurra izaten dut
- Agresio berbalak jasan ditut
- Inoiz agresio fisikoak jasan ditut
- Piropoak esan izan ditut kaletik
- Zapaltzailea naiz.

Dinamikarekin amaitzeko honen inguruko hausnarketa bat egingo dugu. Jardueran zehar izandako sentazioak konpartituko ditugu, hainbat ondorio edo konklusio ateratzeko asmoz. Horretarako, “Zein ideia etortzen zaizkizu burura baieztapen horiek aditzean?”, “gizon eta emakumeak berdinen artean antzeko erantzun dute? Zergatik uste duzu gertatzen dela hori?” bezalako galderetan oinarrituko gara.

3. Talde dinamika: Figurak (15 minutu)

Partaide guztien artean ondorengo baldintza hauek betetzen dituen pertsona bana aukeratuko dugu; emakume gaztea, emakume heldua, mutil gaztea eta mutil heldua. Hala, gainontzeko partaide guztiak talde horietan banatuko dira eta talde bakoitzari post-it batzuk emango zaizkio. Modu horretara, beraien taldeko figurari esleitzen zaizkion rol, estigma, aurreiritzi edo estereotipoak idatziko dituzte post-it-etan ondoren figura den pertsona horren gorputzean pegatuz.

Behin ariketa hau burututa, gainontzeko kideekin konpartituko dute beraien figura eta hausnartzeari ekingo diogu. Bukatzeko, post-it horiek arbelean pegatuko ditugu genero bakoitzari egokitzen zaizkio rolak bertan bistaratu eta pilatzeko asmoz. Gainera, mapa edo pilaketa honetako ideiez gain beste zeozer okurriz gero, ideia horiek pilatzen joango gara arbelean saio osoan zehar, gizon eta emakumeen estereotipoen bilduma bat osatzeko asmoz.

4. Talde dinamika: Binomioak (15 minutu)

Bi hitz izango ditugu oraingoan. Gelan, aurrez aurre dauden pareta banatan itsatsita: GIZONA/EMAKUMEA. Dinamizatzaileak kontrajarriak diren bi hitzez osatutako binomioa agertzen den paper tirak banatuko dizkio taldekide bakoitzari. Eta banan bana tirak eskuekin erditik moztu eta binomioa osatzen duen hitz bakoitza pareta batean eta bestean kokatu beharko ditu. Paretan kokatzeko unean, eztabaida eta galderak sustatuko ditugu eta adibideak jartzen saiatu.

aberats/pobre - objektiboa/subjektiboa - kultura/natura - protagonista/antagonista
arrazoia/emozioa - aktibo/pasibo - pribatu/publiko - zuria/beltza
indibiduala/kolektiboa - produkzio/erreproduzio - autonomia/menpekota
zapaldua/zapaltzailea - pribilegiduna/pribilegiogabea

5. Bideoa: Generoaren eraikuntza (15 minutu)

<https://www.youtube.com/watch?v=qAO0esEWriU>

6. Talde dinamika: Martetar bat dator ni ikustera (35 minutu)

Lehenik eta behin ondorengoa bideoa jarriko zaie.

<https://www.youtube.com/watch?v=FtGcYjr0gPc>

Behin bideoa ikusita "Martetar bat dator ni ikustera" ekintzari hasiera emango zaio: Estralurtar bat Lurrera iritsi da eta gizonak eta emakumeak bereizten ikasi nahi du. Ikasgela honetan jarraibide batzuk emango dizkiogu, bereiz ditzan. Horretarako, 4 edo 5 laguneko taldeak egingo ditugu eta paper batean gizon bat eta emakume bat marraztuko ditugu, dituzten ezaugarri biologiko diferentek adieraziz. Ondoren, marrazkiei biologikoak ez diren baina gizonak eta emakumeak desberdintzen dituzten ezaugarri batzuk gehituko dizkiegu (izaerak, portaerak, gustuak, abileziak, etab.). Taldeek lana amaitutakoan, marrazkiak eta ezaugarriak partekatuko ditugu eta eredu bat adostuko dugu.

7. Osatuz... (10 minutu)

Martetarraren ekintzan eratu dugun eredu horretatik abiatuta, genero rol hegemonikoak bereiziko ditugu, eta arbela osatzeari jarraituko diogu. Hala, sexu bakoitzari esleitu dizkiogun genero-ezaugarriekin irudikatuta ikusten garen ala ez eztabaidatuko dugu, ikasitakoa dena (soziala eta kulturala) bistaratu eta dikotomiaren inguruko hausnarketari eutsiko diogu.

8. Bideoak (40 minutu)

Jarraian lau bideo desberdin ikusiko ditugu. Lehenengo estereotipoen inguruko hitzaldi bat da eta besteak berriz, pertsona ez bitarrek binarismoari eginiko kritikan oinarritzen dira.

Horretarako, lau txoko sortuko ditugu, txoko bakoitzean ordenagailu bat egongo da bideo bakoitzarekin eta taldeka igaro beharko dira guztietatik. Hala, bideo bakoitza ikusi ostean taldekideek elkarrekin komentatuko dute, ondorio nagusiak edo laburpena idatziz jaso, gero talde handiarekin konpartitzeko: adibidez, zer da gehien gustatu zaizun esaldi edo irudia ikusitako bideoan? Edo, zerk harritu zaitu eta zer ezagutzen zenuen? Edo, zer gogorarazi dizu bideoak? Edo, nola lotuko zenuke ikusitako zerbait zure ikasgelako egunerokoarekin? Antzerako galderei erantzun beharko diete txoko bakoitzean.

Talde guztiak txoko denetatik igarotzean, hausnarketa kolektiboa burutuko da.

- <https://www.youtube.com/watch?v=H1C-vG4yBMI>
- <https://www.youtube.com/watch?v=Dy9JMZDP-vU>
- https://www.elconfidencial.com/multimedia/video/sociedad/2017-06-30/genero-no-binario_1407898/
- <https://www.youtube.com/watch?v=8aM0mWvEdvo>

9. Sentimendu erronda_(15 minutu)

Saio guztiekin amaitzeko sentimendu erronda bat egingo dugu, bertan saio honetan zehar izandako emozio, sentimendu, iritzia edo hausnarketak konpartituko direlarik. Ekintza honetan ez da derrigorrezkoa guztiek hitz egitea, nahi duen horrek bakarrik konpartitu dezala barruan daramana.

HIRUGARREN SAIOA (3 ORDU)
ESKOLA EREMU ASKATZAILEA DA?

1. Beroketa dinamika: zutabeak saltoka (20 minutu)

Gelan bueltaka, oinez, arin joango gara alderik alde. Erdian baloia gora botako du batek: eskolaren inguruko balore, oinarri, zutabe edo ezaugarri bat eta taldekide baten izena esanez. Taldekide horrek baloia hartu eta aurreko hitzarekin lotura duen beste hitz bat eta izen 1 botako du. Modu horretara, azaldutako hitz guztiak arbelean idatziko dira eta ondoren eskolaren kontzeptuaren inguruan hausnartzeari ekingo diogu.

2. Beroketa ariketa: esaldiak (20 minutu)

Gure inguruan entzundako hezkuntza inklusiboa lausotzen duten pare bat idatzi eta mahaiaren edo borobilaren erdira botako ditugu (genero, sexualitate, kultura, itxura... estigma edo zapalkuntzak). Denen artean irakurri eta komentatu egingo ditugu.

Ariketa honekin amaitzeko, hausnarketan bitartez, hezkuntza esparruan ematen diren zapalkutzen dimentsio desberdinak identifikatzen saiatuko gara.

3. Talde dinamika: Bideo foroa (30 minutu)

“Vestido nuevo” izeneko laburmetraia ikusi eta ondoren honen inguruko hausnarketa burutuko dugu. Hausnarketa hori sustatzeko, bideoari beste irtenbideren bat topatzen saiatuko gara, aliatu posibleen irudiak sortuz.

→ <https://www.youtube.com/watch?v=gSnpPogIq78>

4. Talde dinamika: Antzerki foroa (50 minutu)

Hezkuntza esparruan genero identitatearen inguruan eman daitezkeen hainbat egoera zehatz antzeztea tokatzen zaie oraingoan. Horretarako, taldeka jarriko dira eta bakoitzari egoera bat azalduko zaio. Beraien eginbeharra egoera horri irtenbide bat ematean datza, gainontzekoen aurrean antzeztu beharko dutelarik. Antzezpen bakoitzaren amaieran, gainontzeko partaideek interbentzioak egiteko tartea izango dute, beraien iritzia, hobekuntza edo beste irtenbideren bat proposatu nahian.

Ondorengoak dira taldeei emango zaizkien egoerak:

- 15 hurreko ikasgela batera iritsi zara, uda luzea igaro da eta gogotsu zaude berriro hurrekin topatzeko. Aurtengo ikasgelako haur batzuk pasaden urteko berberak dira, beste batzuk berriz, berriak. Beraz, hurrekin lehenengo hartu emana izan eta ezagutzeko asmoz beraien burua aurkezteko eskatu diezu. Hala, haurrak banan banan beraien izena esaten joan dira, baina "Jon" izenak moztu du normaltasun hori. Izan ere, haur hori aurreko urtean ere zurekin egondakoa da, Jone izenez ezagutzen zenuena.
- Egungo egoerak nazka nazka eginda zaitu, hezkuntzak ez dio inolako garrantzirik ematen genero ikasketei eta beraz, zure ikasgelako gurasoei formakuntza bat ematea pentsatzen ari zara. Baina zuzendaritzan, irakasle gelan zein gurasoei proposatu bezain pronto hamaika desadostasun, erretxazo eta erresistentziekin egin duzu topo.
- Goizeko patio orduan zaude ume koadrila batekin eta hauetako batzuk azazkalak pintatzeko eskatzen dizute. Zuk onartu eta eskatu dizun orori margotzen hasi zara problemarik gabe. Baina arratsaldea iritsi eta ume horietako baten aita etorri da ikasgelara bere semea etxera azazkalak pintatuta etorri dela kexatuz. Oso haserre dago, bere semea mutila dela eta homosexual bilakatu nahi duzula errepikatzen dizu behin eta berriz.

5. Talde dinamika: talde eztabaida (30 minutu)

Zuen eskola inklusiboa dela uste duzue? Zergatik? Zein dira zuen indarguneak? Eta hutsune edo egin beharreko hobekuntzak?

6. Sentimendu erronda (15 minutu)

Saio guztiekin amaitzeko sentimendu erronda bat egingo dugu, bertan saio honetan zehar izandako emozio, sentimendu, iritzia edo hausnarketak konpartituko direlarik. Ekintza honetan ez da derrigorrezkoa guztiek hitz egitea, nahi duen horrek bakarrik konpartitu dezala barruan daramana.

LAUGARREN SAIOA (2 ORDU)
QUEER PEDAGOGIA ETA GURE EBOLUZIOA

1. Beroketa dinamika: saretzea (10 minutu)

Zutik borobilean jarriko gara eta pertsona batek haria izango du. Hala, haria duen horrek lehenengo pertsonan ikasle bezala inoiz jasan duen edo bere ikasleek jasandako irain, zapalkuntza edo esaldi erasotzaile bat ahoskatuko du. Hori egitearekin bat, hariaren punta bati eutsi eta hari pilota beste bati pasatu beharko dio, pertsona bakoitzak nahi duen oro errepika dezakelarik. Modu horretara, gure arteko saretzea irudikatuko du hariarekin eginiko irudiak.

2. Berotze dinamika: konplizitatea (10 minutu)

Aurreko ekintzaren ildoarein jarraituz, jarduera honetan ere gure arteko konplizitatea izan da oinarria. Ekintza honetan ere borobilean jarriko gara elkarri eskuak emanda eta kide bati borobilaren erdian begiak itxita jartzeko eskatuko diogu. Hala, gainontzeko kideen artean, bi pertsonen arteko eskuen lotura aukeratuko dugu, atea izango dena. Behin hautatuta, erdiko pertsonak atea non dagoen asmatu beharko du gainontzeko kideei begietara begiratzearekin bakarrik.

Ariketa honen helburua konplize edo aliatuak edukitzeak dakarren garrantzia gailentzean datza. Beraz, hau guztiaren inguruan hausnartzeari ekingo diogu.

Berotze ariketekin amaitzeko, eta pedagogia queerrari ongi etorria emateko, ondorego bideoa jarriko da:

<https://www.youtube.com/watch?v=IRuM2SvcLDw>

3. Talde dinamika: Bideo foroa (30 minutu)

“Pedagogia queer” deituriko ondorengo bideoa ikusiko dugu, jarraian honen inguruko hausnarketa eginez:

https://www.youtube.com/watch?v=icQ4BS_ng58

4. Gure ezagutzen eboluzioa (40 minutu)

Lehenego klasean eginiko galdetegi berbera berreskuratu eta oraingo ezagutzen arabera berriro ere galderei erantzungo dugu modu kolektibo eta azkarrago batean.

1. Nola definituko zenuke aniztasuna? Zein da hezkuntzarekin duen harremana?
2. Nola definituko zenuke dikotomia edo binarismoa? Zer da sistema bitarra? Eta hezkuntzarekin zerikusirik duela esango zenuke?
3. Nola definituko zenuke sexua? Eta generoa? Bi hauen artean harremanik dagoela esango zenuke?
4. Nola definituko zenuke genero identitatea? Hezkuntzarekin loturarik duela esango zenuke?
5. Zer deritzozu genero aniztasunaz? Eta genero binarismoaz? Hezkuntzan nola kokatuko zenituzke? Hezkuntzak zer egin beharko luke horiekiko?
6. Ezagutzen duzu hezkidetzak? Nola definituko zenuke? Eta entzun duzu pedagogia queer-ari buruz hitz egiten?
7. Eskola esparru inklusiboa, askatzailea edo segurua dela esango zenuke?
8. Aipatutako kontzeptuen inguruan irakasle izateko informazio edo ezagutza egokia duzula esango zenuke?
9. Garrantzitsua iruditzen zaizu irakasleak gai honetan formatuta egotea? Zergatik?
10. Hezkuntzan lan egiten duzuetik jaso duzu inoiz generoaren inguruko formakuntzarik? Eta jaso nahiko zenuke? Zeri buruzkoa zehazki?

Honekin batera, formakuntzan zehar landuriko kontzeptuekin glosario bat osatuko du bakoitzak bere koadernoan.

5. Sentimendu erronda orokorra (30 minutu)

Saio guztiekin amaitzeko egin izan den moduan, sentimendu ronda bat egingo dugu, baina oraingoan begirada orokorrago batekin, formakuntza osoara zabalduz. Hain zuzen ere, formakuntzarekiko balorazio kolektibo bat burutzea da honen helburua.

3. Eranskina: Infografia

GENERO ANIZTASUNA HAUR HEZKUNTZAN

Irakasleen formakuntza




Hezkuntza eredu askatzaile
bateranzko bidea josten

Egilea: Irene Aizpurua Aranguren
Zuzendaria: Amaia Alvarez Uria

GURE BURUAK KOKATZEN

JARDUERA

Jarraian zure buruaren aurkezpena egin behar duzu. Horretarako, marraztu ezazu zure irudia kuadroan eta zure nortasunaren bereizgarri diren ezaugarriekin bete aldameneko puntuak, erantzunak justifikatuz.



Ezaugarri fisikoak:

Ezaugarri psikikoak:

Generoa:

- Neska
- Mutila
- Beste bat:

EZTABAIDA...

Zer da generoa? Zer da sexua?
Elkarren artean nolabaiteko loturarik dute?

AZALPENA

SEXU/GENERO
SISTEMA BITARRA

MUTILA

maskulinoa

indartsua

burujabea

lehiakorra

zakila (arra)

heterosexuala

NESKA

femeninoa

ahula

mendekoa

sentibera

alua (emea)



GLOSATEGIA

SISTEMA BITARRA

Mendebaldeko pentsamoldea errealitatea aztertzeko kategoría dikotomikoetan oinarritzen da. dikotomia anatomikoa (arra/emea), genero-dikotomia (gizon/emakume), genero-estereotipoak (maskulinoa/femeninoa). Dikotomia anatomikoaren araua hain da funtsezkoa, aurkitzen ez denean sortu ere egiten dela (adibidez, intersexualei sexu bat ala bestea ezartzen diete, araura egokitu ahal izateko). Genero binarismoak, bestalde, emakumeei genero femeninoa eta gizonari genero maskulinoa esleitzea dakar, eta bi aukera horiek derrigorrezko egiten ditu, bestelako aukerak ukatuz edo beste aukera horiek normatik at kokatuz.

SEXUA

Pertsonak ar eta eme bezala bereizten dituen ezaugarri fisikoen arabera banaketa da. Banaketa hau bereziki genitalitatearen dikotomian oinarritzen da zakila: (arra) eta alua (emea), sistema dogmatiko bitarra legitimizatuz.

GENEROA

Sexuaren maila anatomiko eta fisiologikoen esangura sozialari deritzo. Generoaren kontzeptualizazioan desadostasunak badaude ere, oro har, esan daiteke gizon eta emakumeei esleitutako eta sozializazioaren bidez barneratutako rol, identitate eta balioen definizio historiko-soziala dela. Alegia, lan, itxaropen eta portaera zehatzak egokitzen zaizkigu eraikuntza kultural horren arabera.

SEXUALITATEA



Norbanakoak bere gorputzarekin duen harremana, hots; gorputza bizitzeko moduari egiten dio erreferentzia sexualitateak.

HETERO-ARAUA

Hetero-araua edo derrigorrezko heterosexualitatea, sexua, generoa eta sexualitatea sozialki eta ekonomikoki arautzeko modu hegemonikoa da, harreman heterosexualak natural eta normal bihurtzen dituen, horretarako, ugalketa eta familia nuklearra jendarterakunde funtsezko bihurtuz.

ESTEREOTIPOAK

Genero-estereotipoak emakumeen eta gizonen berezko ezaugarriei buruzko uste-multzok dira eta alderdi deskriptiboa zein preskriptiboa barneratzen dituzte. Alegia, emakumeak eta gizonak nolakoak diren eta nolakoak izan behar duten agintzen dute.




SISTEMA BITARRA ETA HONEN DISIDENTZIAK

JARDUERAK

1. Esleitu ondorengo hitz bakoitza dagokion irudiari

Neska/Mutila
Zakilduna/Aluduna
Aberatsa/Pobrea
Objektiboa/Subjektiboa



Aktiboa/Pasiboa
Pribatua/Publikoa
Indartsua/Ahula
Arrosa/Urdina

Ausarta/Beldurtia
Zapaldua/Zapaltzailea
Sentibera/Hotza
Autonomoa/Menpekoa

2. Osatu ondorengo testua zure ezaugarrien arabera

Kaixo! Ni naiz, ... urte ditut eta bizi naiz, irakaslea naiz.

Fisikikoki naiz eta ile daukat. Leku gehiagotan ere baditut ileak: aurpegian, besazpian, hanketan, genitaletan, etab. eta (depilatu egiten naiz/ez naiz depilatzen). Nire itxura fisikoaz (asko/dezente/gutxi/batere) arduratzen naiz. Egia esan, (gutziz, oso, dezente, gutxi, batere) gustura nago dudan itxurarekin eta nire gorputzeko atalekin (ez/ba) dut konplexurik, inoiz operatzea ere (ez dut pentsatu /pentsatu dut) Nire itxura zaintzeko kirol (asko/gutxi/batere ez) egiten dut, eta (askotan/batzutan/gutxitan/sekula ez) dietak egin ditut. (Beti/Maiz/Gutxitan/Sekula ez) naiz makilatzen.

Izaeraz, (irekia/lotsati) naizela esango nuke, publikoan hitza hartzea (ez zait gustatzen/ gustatzen zait) eta taldetan protagonista (izaten naiz/ ez naiz izaten). Orokorrean, nire buruarekiko autokonfiantza (asko/dezente/gutxi/batere ez) daukat. Bestalde, izatez (gutziz/osoz/dezente/batere) maitakorra naizela esango nuke, (sentibera/hotza) naizela uste dut.

Bikotea (daukat/ez daukat), (heterosexuala/homosexuala/.....) naiz, eta (aita naiz/ama naiz/ez dut umerik). (aluduna/zakilduna/.....) naiz eta (neska/mutila/.....) sentitzen naiz.

EZTABAIDA...

Zer da neska izatea?

Zer da mutil izatea?

AZALPENA

MUTIL NORMALA

eredu

hegemonikoa

ESTEREO TIPOAK



hegemonikoa

eredu

NESKA NORMALA

ez-binarioa
transa
...


(araua hausten duen oro)

GLOSATEGIA



CISEMAKUME/CISGIZON

Cissexual esaten zaio jaiotzean medikuntzak eta jendarteak egotzi dion sexuarekin eroso dagoen pertsonari, eta bere burua sexu horretan guztiz identifikaturik ikusten duenari.



TRANSEXUALA

Transexualak ez daude eroso edo ez daude ados gorputzean egokitu zaien sexu anatomikoarekin edota genero-identitatearekin, eta sexua aldatu nahi dute. Sexua aldatu ahal izateko kirurgia metodoak asmatu zirenean sortu zen transexual kategoria.



TRANSGENEROA

Transgenero esaten zaio jaiotzerakoan eman zitzaiona ez den genero batean bizi den pertsonari, baina kirurgiaren bidez gorputzaren genero markatzaileak aldatu nahi ez dituenari, ez dituelako gorputzasun maskulino edo femeninodun estereotipo kultural binarioak osatu nahi.



INTERSEXUALA

Medikuntzaren ikuspuntu hegemonikotik, organo genital maskulino eta femenino anbiguoekin jaiotzen den pertsona da. Medikuek, sarritan, sexu jakin bat esleitzen diete jaiotzean. Arazoak izan ditzakete beren genitalekin eta generoarekin identifikatzeko.

EZ-BINARIOA

Pertsona ez binarioak genero dikotomiarekin ados ez dauden pertsonak dira, beraz, ez dira ez neska ez mutiltzat identifikatzen. Izan ere, sexu-genero aldagaiek ez dituzte multzo edo talde itxiztat pertzibitzen baizik multzo edo talde ireki, continuum eta hortaz, ez bitartzat.




LUMA

Norbaitek luma duela esaten da kontrako sexuaren ezaugarriak erakusten dituenean. Keinu, adierazpen edo jarrera jakinak dira.



ESKOLA EREMU ASKATZAILEA DA?




JARDUERAK

1. Idatzi hezkuntzaren oinarrizko balore edo ezaugarriak



2. Hautatu zuzenak zaizkizun baieztapenak

- Ikasgelako material eta espazioa sexista da
- Helduek espektatiba eta hizkera desberdinak dituzte mutil eta neskekin.
- Ipuinak estereotipatu eta normatiboak dira
- Eskolako lanpostuetan genero rola islatzen dira
- Eskolako familia ereduen aniztasuna urria da



EZTABAIDA...

Eskola eremu askatzailea da?

- Noizbait izan duzu genero arauak apurtzen zituen ikasleren bat?
- Eduki baduzu, zein baliabide, erabaki, jarrera hartu dituzu?
- Gainontzeko ikaskideek egoera ondo onartu dute edo genero arauak betetzen ez zituen haurra bazterturik egon da?
- Eta helduen jarrerak nolakoak izan dira? (beste irakasleak, haurraren gurasoak, gainontzeko haurren gurasoak...)

AZALPENA



Eragile Sozialak

Familia
Politika
Hedabideak
ESKOLA




trasmittitu

Sexu/genero sistema bitarra

erreproduzitu

hautsi



GLOSATEGIA



INKLUSIBITATEA

Ezaugarri desberdinak gorabehera kolektiboaren parte izatea ahalbidetzen duen balore eta praktika.

INTERSEKZIONALITATEA

Intersekzionalitate kontzeptuak jatorri desberdinetako bereizkerien elkarrekiko harremanak ditu aztergai (generoa, etnia, klasea, sexu joera, funtzionaltasuna, etab.) egungo pribilegio eta botere-harremanak agerian uzteko helburuarekin, eta horretarako, subjektu hegemonikoaren naturalizazioa auzitan jartzea dakar.

SEXU/GENERO JAZARPENA

Generoa, sexua edo sexualitatea kontuan hartuz sortzen den botere-harremana eta horren ondorioz eragiten den indarkeria.



CURRICULUM EZKUTUA

Hezkuntza formal, ez-formal eta informalean irakasten diren eta curriculum esplizituan agertzen ez diren gaitasun, balio, jarrera, jokabide, rol eta estereotipoen transmisioa.



QUEER PEDAGOGIA

JARDUERAK

1. Neurtu zure pribilegioak

JATORRIA

Europearra +25
Asiarra +10
Latindarra -50
Besterik -100

SEXUA

Arra +25
Emea -25
Intersex -75

GENEROA

Cis +50
Trans -125
Queer -150
Ez ditut terminoak ulertzen +100

JOERA

Hetero +50
Homo -50
Bisexuala -25
Besterik -100

ERLIJIOA

Kristaua +25
Judua -10
Ateoa +0
Musulmana -50
Besterik -30

EZGAITASUNA

Bat ere ez +0
%25 -20
%50 -50
%75 -75
%100 -100

HIZKUNTZA

Erdal elebakar +50
Erdal elebidun +20
Euskal elebidun +0
Euskal elebakar -100



-200 >

oso ez pribilegiatua

0-100

bataz bestekoa

200<

errebisatu egunero

-200 -0

ez pribilegiatua

100-200


pirbilegiatua

2. Idatzi aurreko irizpide bakoitzaren inguruan zabaldua dagoen aurreiritzi edo estigma bat



EZTABAIDA...

Nola ikusten duzu zure burua, irakasle bezala,
(genero) aniztasunaren aurrean?
Nahikoa baliabide eta ezagutza duzula esango zenuke?
Zure umeak aske hezten dituzula uste duzu?



AZALPENA

HEZKUNTZA SISTEMA



QUEER PEDAGOGIA



FEMINISMOA

Emakumeek pairaturiko ezberdinkeriak gainditu eta jendarte bidezkoagoaren alde lanean diharduen mugimendu sozial, kultural, ekonomiko eta politiko anitza da. Jendartearen antolaketan gizonezkoek duten nagusitasuna eta emakumeek pairatzen duten mendekotasun-egoera aztertzeko, ulertzeko eta iraultzeko garatu diren kontzeptu eta tresna teorikoen, zein aldarrikapenen multzo koherentea da. Historikoki emakumearen askapen-borroka ardatz gisa hartu duen filosofia da feminismoa.




TRANSFEMINISMOA

Transfeminismoa feminismoaren korranteetako bat da. Mugimendu honek feminismoaren subjektuak zabaltzen ditu. Hots, gorputzaren kontrolaren inguruko kontzeptuak hartu eta zabaltzen ditu, baita genero biolentziaren ingurukoak ere, honek emakume zisetatik haratago, emakume zein gizon trans, gay eta lesbiana eta heteropatriarkatukoarauak betetzen ez dituen ororengan eragina baitu. Hala, LGBT mugimenduak eta queer teoriek eragiten diote, batez ere transexualen eta intersexualen ikuspegitik. Baita, mugimendu antiarrazisten, postkolonialisten eta gizarte-mailaren, etniaren, generoaren edo sexu-orientazioaren arabeko bazterkeriaren aurka borrokatzen duten mugimendu politikoek ere.



HEZKIDETZA



Genero-irizpide patriarkalei muzin eginez eta balio feministetan oinarrituta heztea da. Pertsonak bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da, hau da, irizpide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe heztea da.

QUEER

Queer hitzaren jatorrizko esanahia «arraroa» da, eta ingelesez gay eta lesbianak iraintzeko termino bat zen. Hala ere, 1990eko hamarkadan AEBn sexualki normatiboa ez den guztia izendatzeko hartu zuten termino hori eta esanahi berriz hornitu, modu horretan, lehendik zuen konnotazio negatiboa positibo bihurtuz eta hitz horretaz berjabetuz. Hemendik sortu zen queer teoria, kultura edo mugimendua deritzona, heteronormatibitatea salatzeke espazio politiko bat, identitate transgresoreen aldeko ekimena.


QUEER PEDAGOGIA

Queer teorian oinarritzen den pedagogia da. Pedagogia honek ardatza normaltasunetik urruntzen du, nola edo hala eguneroko praktikan transgresioa, eztabaida, gatazka eta deserosotasuna txertatzeko helburu nagusiarekin periferian daudenak erdigunera ekarriz.



ERREFERENTZIAK

LIBURUAK



GIDAK



ILUSTRATZAILEAK

WEBGUNE HAUETATIK BERRESKURATUTAKO IRUDIAK

<https://smoda.elpais.com/feminismo/aguja-cargadas-por-que-las-mujeres-que-bordan-tambien-son-revolucionarias-del-feminismo/>

<http://revistavacio.com/genero/feminismos-brujas/>

<http://www.redfeministaantimilitarista.org/lo-que-hacemos/pedagogias-feministas-populares/item/crearte-para-la-paz>

<https://www.educandoenigualdad.com/2019/03/11/las-mujeres-del-dia-de-la-mujer/>

